

Jadanik

**105 bulego ditugu prest zuretzat
eta, gainera, 50 zerbitzu ezberdin
baino gehiago; guztiok zuri
eskaintzeko.**

**Baina, hala ere, gehiago jaso nahi ditugu
Eta lortuko ditugu.**



**CAJA DE AHORROS
VIZCAINA**

Hemen irabazi guztiak zuretzat dira

AURKIBIDEA

3 EDITORIALA

Soljenitsyn

4 TANTAKA:

A. Zurritegi
X. Kintana
X. Gereño
Unzurrunzaga

6 EUSKAL HERRIAN

Kultura
Hezkuntza
Politika
Hirigintza
Ekonomia
I par aldea

15 IBERIAN ZER

Katalunia berriaren bila

20 MUNDUAN BARRENA

21 ERLIGIDAZ

22 ELKAR IKUSKA: Avui

25 HIZKUNTZA

26 AISIAREN ORDUA

Kaleko
Urrezko astabelarriak
Guruntzegrama

Maketapena: Fernando


Marrakziak: Fernando eta Olariaga

Moldiztegia:

Elxepuru Hnos., S. A.

San Martín, 153

Zamudio



Soljenitsyn

IRAULTZAREN MARTIRIA ALA KONTRAIRAULTZAREN KANTARIA?

Martxoaren 20an, larunbatetako "Directísimo" teleprograman Alexandr Issaievitch Soljenitsyn mintzatu zen. Ordu erditik gora mintzatu ere. Profeta baten itxurarekin, salatzeari ekin zitzaion. Sobietar Batasuna, komunismoa, sozialismoa, eta horiekiko Mendebaldearen jarrera gupidagabeki kondenatu zituen. Planetaren nondik norakoa dakienaren antzeko segurtasunarekin mintzatu zitzaigun.

Soljenitsynen hitzek ez digute batere onik egin. Hari entzunda, Paradisuan bizi denaren kontzientzia txarrarekin gelditu ginen: ez omen dakigu zer den diktadura, ez eta askatasunik eza. Paradisutik irten nahiz gauzak aldatzera jotzen duenak, politik bide batzu bilatzera doanak... horrek Adamen pareko erantzunkizunen bat edo luke. Zeren eta garbi esan zigun Soljenitsynek, aurrerapenak, aldakuntzak, sozialismoak, berak jasan duen infernura garamatzala. Zuzenki eraman ere, bihar ez bada etzi.

Horrenbeste sufritu duen gizon bat begirunez tratatzeko berezko joera izan arren, ezin dugu haren jokurik onhartu. (Gure artean ere, ba da sufritu duenik, gainera). Soljenitsynek iragarritako etokizunaren ispiluan ez dugu geure bururik ikusten. Sobietar Batasuneko manikeismoa alderantzira eman besterik ez digu egin Soljenitsynek. Honentzat, bitan banatzen da mundua: komunismoa (erabateko Gaitz osoa) eta gainerontzekoak (noraeezan dabilzanak). Sinplekeria haundiegia da.

Amore ematea, dimisioa, lozorroa salatzen dio Soljenitsynek Mendebaldeari. Eta horretan ere, Féron-ek Le Monde Frantziako egunkarian, Soljenitsyne hango telebistan egon zenean idatzi zuenez, salbatzen duen intransijentziatik itsutzen duen tolerantziarik ezera lerratzen ari da. Sinesgarri iraun nahi badu, salakuntza ez dela aski pentsatu behar du. Politikazko azterketa zor digu Soljenitsynek.

"Politika" gutietsiz, gudu izpiritualtzak jotzen du berea Soljenitsynek. Hala dateke. Baina ba da besterik ere. Soljenitsynek amesten bide duen kristauteriak bere baitan darama gizarte-molde bat, politika-modu bat, etc. Politikaren gainetik dabilela esatea ez da aski. Aurrerapen ideiak eta sozialismoa deskalifikatzen diharduenari, zeinen jokua egiten ari den galdetu behar zaio. Politikazko inozentziaren izpirik ez dago Soljenitsynen hitzetan. Une honetantxe Espainiara etortzea, ezkerak darabiltzan ideien aurka mintzatzea, eta jendeak gehienbat ikusten duen programa batetan agertzea... ez dira esannahi gabekoak. Soljenitsynek ba daki zertan dabilen. Eta Fragak ere bai.



KANPOKOAK ETA BERTOKOAK BAT

Euskal Herriak bizi izan dituen azken gertaeretan, bost langile hil dira: haierarik batzu bertan jaiok eta beste batzu kanpotik gurera lan egitera etorriak. Eta heriotzean elkartu diren bezala, haien arimen aldeko elizkizunetara joan direnetarik batzu bertokoak ziren eta beste batzu kanpokoak.

Bost hildako horietariko bat Basaurin hil zuten martxoaren 8an, eta haren aldeko elizkizuna Basozelai futbol zelaian egin zen. Hildakoa kanpotik etorria zen, eta elizkizuna txistulariekin hasi zuten, eta mikrofonoetatik euskara eta gaztelania erabili zen, 30.000 lagunengana aurrean.

Honek zera frogatzen du: hemen daramagun burruka denona dela. Euskaldunok berriz ere frogatu dugu egun hauetan, eskua luzatzerako orduan ez garela atzean geratzen, gurera lan egitera etorri direnekin bat egiten dakigula. Orain kanpokoek frogatu behar digute (askok jadanik egin dute) gure komunitatean integratu nahi dutela, gure hizkuntza eta kultura bereganatuz.

Atzerrian jaiok izan arren, Euskal Lurraren gainean beren odola isuri duten hilak eta zaurituak elkartu diren bezala, elkar gaitetzen hemen bizi garen guztiok, Euskal Herri zuzenago bat lortzeko asmoz.

IRAKASLEEN ERANTZUNKIZUNA

Dakigunez, ikastola batetako irakasle batzu, hauzi bat dutela eta, ez dira behar bezala beren auletan portatzen. Barruan daude, baina ez diete ikasleei erakusten. "Zer egingo dut" galdetzen badu haur batek, sorbalda jasoz erantzuten diote.

Gu ez gara, hauzi horretan arrazoina duena nor den erabakitzailea sartuko; baina gogor, oso gogor, kondenatzen dugu goian aipaturiko irakasle horiek auletan daramaten portaera.

Duten burruka gurasoekin bada, burruka daitezela haiekin; baina, mesedez, utz ditzatela bakean haurrak, ikasleak. Portaera horrek irakasle horien erantzunkizun eza frogatzen du, eta hori ezin daiteke inolaz ere onhar.

SEGOVIAN

Euskal preso Abertzaleek barne egoeraren berri emanaz atera duten paper bat dela eta, 20 egunetarako zigor gelatan sartuak izan dira.

BUSGOSEKO GARTZELATIK

Zazpi euskal preso politikoen familiak gartzela honetatik dakartzaten berriak ez dira onenak. Zazpiok galeria hertsiki berezian, beste presoekin harremanik gabe hiru funtzionariaren kontrolpean egun osoan. Igande Mezatarako baimena ere ukatu egin zaie. Burgoseko periodikua dute aldizkari bakarra eta hau ere nahiko atzeratua. Paketeak, familiak bisita egun hartarako eraman lezakeen janari beroa besterik ez. Bisi-tak berriz asteazken eta ostirale goizetan, inola ere alda ezinak; guraso, anaia, emazteek bi eguneko lana galdu behar hara joatekotan.

EUSKAL PROFESIONALAK

Martxoaren 7an Arantzazun izandako 500 euskal profesionalen bilerak eta han ateratako manifestuak ez dute inongo oihartzunik ukan. Argi ikusten ez duguna, *France Press* ek berri honen


publizitate ez ematearen arrazoia. Terio desberdinetatik beldur berri iritsi ote gara... Euskal Hego Aldeko profesional artean (mediku, arkitekto, abokatu, injeniari...) 500 lagun berriz erraz dela jakin eraztea ez ote zaien Aldekoei komeni...

Dena dela, ez Pariseko Irratiaz, eta *Monde* ez besterik ez dira berri honen komunikabide izan.

PSOE berriz

Arantzazuko 500 Profesional Bilerari gagozkiolarik, nondik eta PSOE izan omen du oihartzunik. Bertan gabe Fernando Múgica Hartzeguz zehaztu nahi izan du: "ez omen ziren 500, ez eta Profesional, 300 bat esan diante baizik".

Arantzazuko prailegai estudianten ote ziren ba, Fernando?



CAMBIO 16 ETA EUSKAL HERRIA

Aurtengo Martxoaren 8-14eko *Cambio-16*ean (222. zenbakian) ikusi eta irakurri dugunez, Espainiako aldizkari sozialista horretakoek, Gernikan PCEkoek egin bezala, Euskal Herria (*Euzkadi* haien hitzez) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara mugatzen digute, Nafarroa, jatorrizko "*terra vasconum*", aparteko zerbait bailitzen. Euskaldunontzat nafarren euskalduntasuna ez da zerbait interpretagarri, histori eta soziologi *factum* bat baizik eta horrekin jolastea euskaldun guztioi egindako irain bat besterik ez da. Aski burlarik jasan dugu euskaldunok diktadura garaian eskuindarrendandik, demokraziaren aitzindari gisa agertu nahi duten sozial-inperialista berriogandik antzekoak pairatzeko.

Ezaguna dizuegu *divide et vincas* delakoa, jaunok!

Dakizunez, Telebistan, PINPILINPAUXA saioan, Leirek eta Enekok euskarazko ipuin polit batzu presentatzen dituzte hilero. Ipuin guztiok laster agertuko dira, eta kolore zoragarriez apaindurik gainera.

Ipuinok, launako sortatan, nahi badituzu, etxera pertsonalki eramango dizkizugu, horiengatik 160 pezeta ordainduz. Horretarako, bete ezazu beheko kartela eta bidaliezaguzu helbide honetara:

IKER, S. A.
Zabalbide, 68, entr. dcha.
Bilbao-6

Izena

Deiturak

Bizilekua

Herria

PINPILINPAUXAko ipuinak, launako sortatan etxean jaso nahi nituzke, sorta bakoitzagatik 160 pezeta ordainduz.

Firmaturik



ELAI & ALAI
YURRE

DANTZATOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA



Gaurkoa zarenorri
guk ezer eskaintzean,
biharko emakumeari ere
ari gara eskaintzen.

Laguntza berriak
zuri ematean,
zure nekeak, zure kezka zaharrak
dihardugu arintzen.

Berriak dira,
zuretzat ditugun asmoak:
onhartzten zailtxoak beharbada,
guztionez baitira berriak.

Baina zein ederra den pentsatzea,
gaurko urrats zailok
aurrera gaituztela hideratzen,
biharko digutela
bidea urratzen!

Emakumearen Bankua.
Gaurkoa eta Biharkoa

BANCO DE BILBAO





DEUSTUKO HIZKUNTZ ESKOLAN EUSKARA

Bilboko HIZKUNTZ ESKOLAN orain dela aste batzuek, euskara irakasten hasiak ditugu. Madrileko Ministergoak onhartu omen du gure gurea den euskara eta bera bakarrik omen da euskaraz nor dakien ala ez agiririk emateko gauza.

Harrizkoa benetan! Arrotzek, gure hizkuntza zuzendu. Ikasbideak antolatu eta zuzendu. Irakasleak hatzamarrez izendatu. Agiriak eman. Ikasleak mailakatu etab. etab. Eta inork besterik ez dezala muturrik sar, gero!

Honek, nere ustez, bi gauza adierazten du garbi asko:

a) Euskal Herria beste enbor bateko adartzat hartua izan dela.

b) Euskal Herriko erakundeak ez direla onhartuak izan.

Hori horrela izanik, euskaldun jator batek ezin dezake horrelakorik onhar, ez eta urrunetik ere. Bestalde, gaur egun, gure artean gertatzen ari diren zarpailukeriak ez salatzea, konponketetan sartzea bilakatzen da... eta ez da babak egosteko garaia, mozorroak ipurzulotik hartu eta hankaz gora botatzeko baizik.

Ez da nahiko Euskaltzaindia onhartzea. Gero beronen eginkizunak ez badira onhartzeko, bide okerretik doaz hizlari jaio hoik eta adarrak somatzen zaizkie mozorro atzetik... Euskaltzaindia ez bada euskara zaindu eta zuzentzeko, esan diezagutela zertarako den. Horretarako gai ez bada gure Euskaltzaindia esan diezagutela nor den eta noren izenean. Besteren oilategian sartu ohi den oilarra mokoka kartua izan da beti...!

Hizkuntz Eskola honek egin duena, duena, besteri ahalmena kentzea da. Euskaltzaindia, ba, beraz, euskaldun bat euskaraz zein neurrian jabetu duen esan behar duen erakunde bakarra... Nori dagokio gaztelania-agiria zabaltzeko eskubidea? Gaztelako erakundeari ez bada... Baina gurean sortu diren sorginkeriak ez dira nolana hikoak...!

Zenbaitek pentsa dezake demokrazi usainean etorri zaigula "baimen" hori... Ez gaitezen lilura, etxekook! Nere ustez, zirritu guztiak hestutzera etorri zaigu, hots: Euskaltzaindiak, lehen euskal lurreen zehar, han hemenka, banatzen zituen tituluak, orain Bilbon bakarrik lor daitezke... eta hori hestutzea ez bada ni etsaien xipua nauzue!

Dena dela, hor dabilkizue, zenbait eta zenbait ikasle euskara kakazteko zorian (ikasteko esan nahi nuen, barka!). Irakasle gutti, ikasle larregi. Ikasbide eza, arau eza, buru eza eta era guztietako ezkeria guztiak batean ditugu zorioneko Hizkuntz Eskola horretan. Mailakatzerakoan ere, nola hala beraien eginkizuna beterik, hor gaude, asko, erdipurdiz, gutti gora behera, nardaska hutsean etab. dakigunok... danok baturik. Ezetz horrela joka beste hizkuntzarekikoan? Gurea beti larre hizkuntza ala ze arraio? Ez dago eskubiderik horrelako nahaste berrastean bizitzeko. Besterik ere ba dago, noski. Esate baterrako, oraindik inork ez daki zertarako gertua dagoen ikastaro hau: irakasleak gertutzeko ala euskara ikasteko? Ez baita ikusten garbirik!

Eta azken hau arazo larri baten erakusle da, zeren eta Euskal Herriak orain irakasle trebe eta yayoen behar gorriarri tago...

Neure aldetik, eskabide hauk egingo nituzke, eta ez da nori.

1. Euskaltzaindia izan dadila ikastaro hauk zuzen ditza keena.
2. Irakasle oro, Euskaltzaindiak zabalduetako agiridunak daitezela edo bestela euskaltzaindikoak.
3. Euskaltzaindiak berak era ditzala eta ditzala ikastar bakoitzeko arautegi eta mailakatzeak.
4. Euskaltzaindiak beste bazterretan tituluak zabaltzeko duen eskubidea onhartu izan dadila eta erakunde horrek emandako tituluak, Deustuan lortutakoak beste laxe izan dadila.

Baina... zer egin genezake, barruan gaudenez gero... konturaturik ezer gutti lor daitekeela konturaturik? Ozenki esan gurea dena, etengabe.

1. Hizkuntz Eskolak, baldin borondate onik badu, ditzala Euskaltzaindiaren erabakiak.
2. Azal diezagutela garbi zertarako den ikastaro hau, irakasleak trebetzeko ala euskara lantzeko... ez baita beldina!
3. Hizkuntz Eskolan ematen diren beste hizkuntzak beste lakoxe eskubideak ukan ditzala gure euskarak.
4. Aurretik eta lehenbailehen eman diezagutela, ikastar roetako arautegi osoa.
5. Bai irakasle titulu bila etorri direnentzat eta bai bostentzat zer nolakoak izango diren azterketak gertu azaltzea.

Hori egiten ez den bitartean, buruhauste izugarriaz zertutuko gara gure zorioneko Herri honen hizkuntza landu ditudunok.

Asier BERROETAETXER

"BITOR GARITAONANDIA" ANTZERKI SARIA 1976

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren saria,
Euskaltzaindiak eratu

Sariketaren oinharriak

1. Euskaraz, Euskaltzaindiak Arantzazuko bileran (1975) erabaki zuenaren arabera (Ikus "Euskera", XIII, 1975) kua, 250. horrialdean), baina literatur balioak lehen kontuan izanik.
2. Egileak bere kabuz eginga izan behar da. Ez da onhartzeko ez itzulpenik ez eta bestetatik egindako erlanik.
3. Lanaren neurria libre uzten da, alde batetik materiala idatzia, lerrone bat zuri utzirik, folio edo DIN A-4 formatu neurrian.
4. Sari bakarria, Bizkaiko Aurrezki Kutxak jantzen 100.000 pezetatikoa, ezin zati daitekeena.
5. Saria gabe gelditu daiteke, epaimahaikoei hala idazteko bazeaie.



6. Lanak argitara gabeak izan behar dira, eta hiru kopia bialdu behar dira Euskaltzaindiaren etxera (Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6 - Bilbao-5), 1976.eko uztailaren 22rako. Lema batez izenpetua, eta lemaren giltza estaldua, egilearen izen eta deiturrekin, lanarekin batera bidaliz.
7. Epaimahia Euskaltzaindiak izendatuko du.
8. Saria, urriaren 31n, Aurrezki Kutxen egunean emango da, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren etxean egingo den jaialdian.
9. Arau hauk interpretatzean sor litezkeen arazo guztiak, Euskaltzaindiak izendatzen duen epaimahaiak erabakiko ditu. Eta erabakiaren kontra inora joaterik ez dago.

EUSKAL ZINEMAN ERE
LEHEN URRATSUA
ZINEMA MUTUA
OTE ?



EUSKAL ZINEMA

Otsailaren 24tik 27ra, Bilboko SANTIAGO APOSTOL aretoan, EUSKAL ZINEMAREN LEHEN ERAKUSKETA eskainia izan zen. "Azken urteotan Euskal Herrian egin den zinemari ikuste zabal bat" ematekotan edo ARESTI TALDEKO gazte prestu prestu horiek 10 filme azaldu zizkiguten.

Ez noa orain zeintzu izan ziren esatera, ez eta zergatik hainbeste gizon trebek huts egin zuen mahai ingurutik. Utz ditzagun oraingo susmoak...

EUSKAL ZINEMA zer den eta zer ez den izan zen erakusketaren muina. Denetatik azaldu zen: emandako zenbait filme nire ustez —eta beraia ere bai— ez baitzuen euskal kutsurik, nahiz Euskal lurrian jaiotako gizon batek zuzendu, nahiz euskal bazten batean egin.

Mahai inguruak oso makalak izan ziren, ez baitzegoen ez gatzik ez eta piperrik. Dena dela, jakiteko prestatuak izan ziren eta tira...

Han hemenka zenbait eritzi, zenbait jokaera, zenbait nahaste sortu zen. Hizkuntzarekikoa izan zen eztabaida latzema. Askorentzat ez dago garbi euskaldun izatea zertan datzan. Gaur egun euskal lurrian jaiotzea ez dela aski esango nuke nik, ez eta hainbeste euskal deituez inguratutik burua edukitzea. Ez da berdina, zinegile batek zioena esatea, hots, "el vasco soy yo", ala "euskalduna naiz" apalki aitortzea. Batzuentzat, euskal arazo bat astintzen duen filmea, euskal zinema arlokoa da; besteentzat, berriz, euskaraz ez bada hitz egiten zine barnean, ez dago euskalduntasunik. Askorentzat, aski da hemen jaioa izatea izatea eta horientzat berdin da Kerejeta, Erize Olea, Basterretxea, Caro Baroja, Sota ala bes-

te edonor izatea. Besteen eritzirako, euskaldun baten obra, nahiz filmea, irudia ala beste zerbait, nahi eta nahi ez euskalduna da. Norberak bere izatez jokatu eta lanean diharduena baita. Norbaitentzat euskal zinema iraultzailea ez bada ez da "euskal", nahiz eta zinema izan. Eta beste askorentzat, horrek ez du axolarik; zine trebetasuna izanik, hor dago lana eta lan horrek adieraziko du "nongoa" den eta kitto. Batek baino gehiagok zioen Euskal Herriaren hizkuntza bat baino bi zirela eta, horregatik, biak zirela "euskal" hizkuntzak... Ba dirudi zenbaitentzat gaur egun Herriak jasaten duen egoera izatezkoa dela eta aldatzerik ez dagoela. Diglosia ala hizkuntzabitasuna... hizkuntzalariek esan dezatela, esan.

Inoiz ez zen elkar hizketa burutsu bat josi eta nik somatu nuena baino ez diot. Azkenean, amaieran, eskabide batzu egin ziren: "oinharrizkoak eta larriak, hasteko bederen" esan zuten antolazailleek: bekak, zine ikasleak, zine hariak edo gidoiak eta horrela... Sistiagak ete beste norbaitzuk ziotenez, eginahaletan eta lanaren zehar ikusiko da euskal zinema zer den. Oraingo egin dezagun, gerorako azterketak... eta lanari lotzen denak du hitz egiteko eskubide osoa. Hori, ziotenez...

Gaur egun Euskal Herria arazo nahiko korapilotsua denez gero, korapiloetatik hasi beharko dute lanean "euskal" lana sortu nahi dutenek. Harritzen nauena zera da, hots, zergatik esaten da "zine nazionala" eta ez "zine abertzalea"? Horek ba du neretzat xehetasun gorri bat, zeren eta hizkuntzarekikoa pentsamolderekiko arazoa da sakonean.

Gizona bere gizarteari lotuta dagoelarik, inork ezin du gizonki joka hori kontutan ez badu hartzen. Euskaldun artista batek ere ez, gero. Estetika kontua, horretan bakarrik murgiltzen bada, estetikakeria hutsean amaitzen da. Estetika ere zerbait baliagarri bilakatu behar du, gizonen eta gizartearen onuragarri izan nahi badu. Estetika lan batek, "euskalduna" izan nahi badu, euskal arazoei lagundu behar die, hain zuzen. Euskal gizonengandik euskal gizonengainoko bidea egiten duen lana da euskal artelana; baita zinelana ere. Horregatik eta muga bezala, euskara eta beste hizkuntzen arteko harremanak normaltzaz jotzea, era berdinean lerrotzea ez da normala, ez eta euskalduna. Guttienez, egoera hori astingarri, eztabaidagarri eta ezinezkotzaz hartzea eskatuko nuke nik euskal deitura eraman nahi duen zinemari. Aberri bat, hizkuntza bat. Bat baino gehiago badira... inor ez dadila inoren menpean ihardun...

Bestalde, gure aberria aberri zanpatua da. Hortik abiatu behar da. Hori agertu, behin eta berriro onhartzina dela aldarrikatuz. Herri tiki honen oinazeak, egarriak, beharrak, ezinegonak, burruhauesteak, gogoetak etab. Nortasuna eta ondorioz, berezitasuna.


Arazo ideologikoetan sartu gabe —bakoitza berea edukitzea eskubidea baitu, eta euskaldun bat era askotakoa izan baitaiteke—, zinea eta euskal zinemari hau eskatuko nioke:

- euskal nortasunaren adierazle izatea,
- euskal egoera korapilotsuaren agertzaile eta argitzaile azaltzea,
- euskal burruka tresna bilaketzea
- euskara ahalik eta gehien erabiltzea
- kapitalismo azoketatik ahalik eta urrunen ibiltzea,
- kapitalismo hutsean eror ez dadin; kapitalismoaren bitartez ez baitago kapitalismo ezerezerik...

Bide honetarik joan diren zenbait zinegile ba dago munduak zehar. Ondo etorriko litzaieke zinegileei —euskal zinegileei— Godard, Glauber Rocha eta Errusiar autore zaharren iturrietatik apurtxo bat edatea. "Dziga Vertv" en lanak eta beste taldeen ekintza iraultzaileak onhartu eta jaso beharko lituzkete... guretzat ere zinema, iraultzaile bihurtzea nahi badute behintzat...

JESUS MARI ZALAKAIN

hezkuntza



EUSKARAREN EGOERARI BURUZ OTSAILAREN 21EAN MAISUEN ELKARTE KATOLIKOAN EGINDAKO BATZARREAREN LABURPENA

Euskararen egoera kontuan izanik Maisuen arteko bilinguismo taldekoak egoki ikusi genuen batzarre zabal bat egin da.

Batzarrean ondorengo hauk bildu ziren:

- Santutxuko Famili Elkarteko bilinguismorako taldea.
- Ikastolak.
- Litentziatu eta Institutuak.
- Magisterioa.
- Kultur Elkarreak.
- Abokatu Gazteen Elkarte.
- Maisuen arteko bilinguismorako taldea.

Erabilitako puntuak:

I. IRAKASKUNTZA

- Ez ditugu onhartzen Lege Jeneralaren 14. eta 17. puntuak; ez eta Maiatzaren 30ean emandako dekretua: Dekretu horren interes bakarra gaztelania ondo ikastea dalako eta ez duelako konpontzen euskara dakitenean eta ez dakitenean arazorik.
-Praktikan eraman ezina da, ordu-banaketa, joan etorria, irakasleen soldata etab.
-E. G. B.-ko norabideetan progamatugabe, baizik eta boluntarioki eta gainera beste gaiei ezelako oztoporik ipini gabe eman behar den irakaskuntzak ez dio Euskal Herriko beharizenari erantzuten.
- Orain arte (ez traba eta oztopo gabe) ikastolak izan dira bilinguismoa praktikara eraman duten bakarrak. Bizkaian 1970ean 47 ikastolatan 8.000 ume zeuden eta 1972an 165.000 ume ziren Bizkaian E. G. B. ikasten ari zirenek. Konparatzea baino ez dago ikusteko. Eskola nazionalak ez dira inoiz bilingueak izan ez eta guttiago ere, nahiz eta orain toki batzutan euskara ematen hasi eskola orduetatik kanpo (Mallabia dugu Bizkaian eskola orduetan ematen duen eskola bakarra).
Erdi mailako irakaskuntzakoek 1975eko apirillean eskabide batzu egin zizkieten Unibertsitateko Errektoreari baina oraindik ez dute erantzunik jaso.
- Irakasleei dagokionez, preparazio eta titulu falta izugarria ikusi zen. Hizkuntz Eskolan orain ipini dituzten ikasketek ez dute arazoa konpontzen. Magisterio Eskolan gertatu behar dira ikasleak eta ez euskara irakasteko bakarrik baizik eta euskaraz irakasteko ere bai.
- Sortu berri duten "Comision de Bilinguismo" delako horrek ez duela ez zer esanik, ez noren izenean esanik adierazi zen, gehienek ez baitakite ez euskararik ez bilinguismoak sortzen duen problematikarik ere.

II. EGOERA GLOBALA

Larriena, eta beste guztia ondorio bat bezala dator, euskararen ofizialtasunik ezean dugu punturik beltzena, beste guztia horren ondorio bat besterik ezpaita.

Ez dugu onhartzen dekretu hau. Euskara bera diskriminatzen duelako, hain zuzen ere, euskara ez dakienik ezin diskriminatu esatean.

III. ONDORIOAK

Denok, herri eta hauzoetako guztiok elkartu behar dugu egoera honi geuk nahi bezalako irteera emateko.

Epe laburrera hau eskatzen zen:

- Datorren ikastarorako eskola nazional guztietan euskararen irakaskuntza ezartzea eta eskola orduak barruan.
- Orain arte emandako euskal irakasle tituluak onartzen eta maisu titulu gabeek ere euskara irakasteko ahalmena lortzea.
- Bilinguismoa praktikan jartzea hauzo eta herrietan kartel, dei, anuntzio, eta batzarre guztietan.
- Sektore bakoitzak bere balantzea egiten du hurrengo batzarrerako.
- Jan hau kontuan harturik benetako BATZORDE bat eratzeko posibilitatea izanen dugu.

Luzaro begira egin behar diren eskabideek ere lan horietatik sortuko lirarteke.

Hurrengo batzarrea martxoaren 26an izanen da.



BERROGEI URTEREN ONDOREN

Berrogei urte baketsu eta pozgarrien ondoren, orain gara haien ondorioak ikusten.

Berrogei urte hauetan dena ondo egina izan da, eta munduko lekurik onenean bizi ginen.

Berrogei urte Herriaren alde lan egiten, Herri aberaspena ohia izan dadin; baina Herriak zer nahi duen esateko gabe.

Berrogei urtez ekonomiaren hazkuntza helburu bakarra zela.

Berrogei urtez entpresari laguntzen, entpresari ziozintzan bakarrik finka zedin.

Berrogei urtez, ondo ez zegoela esaten zuten ahoak ixileraziz.

Berrogei urtez atzerriko iritziak eta aurrerabideak murriztuz.

Berrogei urte atzerriko ideien beldurrez.

Berrogei urtez itsu.

Berrogei urtez gor.

Berrogei urtez lotuta.

Orain munduko errealitatean ibiltzen hasi gara, eta dugu ondo ez ikusten ez eta entzuten, gorpuzka dabilen lotuta dugu eta.



EUSKAL HERRIAREKIN KOLONIALISMORIK EZ

Munduan zehar kolonialismoa hankaz gora doan garai honetan, beltzek berek ere Afrikako bazterretan herri nortasuna lortu duten une honetan, ba dira oraindik kolonialismoa iraunerazi nahi dutenak.

Zer da kolonialismoa? Era askotara praktikatzen da. Adibidez, kolonialismo kulturala dago herri baten hizkuntza eta kultura bigarren mailara bortxatzen kanpoko baten menpeko bihurtuz. Joko honekin herri nortasuna ukatzea da helburua, jakinik hizkuntza eta kultura nortasun haren oinharria direla. Beraz, hizkuntza eta kultura baztertuz herri nortasuna hil zorian ipintzen da. Nik orain kolonialismo kultural hau aztertu nahi nuke lan honetan.

Aurreko urte ilunetan Euskal Herria, besterik ezinean, kultur lanetan ihardun izan da, eta zorionez gainera, zeren arlo honetan egin dugun lana ez soilik handia, baizik eta etorkizun batetarako garrantzi handikoa izan da. Guk, orain, lan haien fruitu bezala, politikan hain balio handikoa den "hecho consumado" bat aurkeztu dezakegu: bere hizkuntzaren eta kulturaren balioaz jabetu den herri bat. Ikastolen mugimendu indartsu bat, heldutasun bat lortu duen euskal literatura bat, kazetaritza urrats handiak egindako zerbait, milaka euskaldun berri, euskara batua, euskal unibertsitatearen aldeko deia eta hiru udatako saio baliosak, etab. etab.

Gudu zibila bukatu zenetik hainbat urte igaro izan dira, eta urte horietan aldakuntza nabarmenak gertatu dira Euskal Herrian. Esan dugunez, hizkuntzak aurrera egin du, batez ere goi maila kulturaleko jendeagan, eta lehenago ez zuen balorazio bat lortu. Bestetik, ideologia sozio-politiko-erlijiosoan, aldakuntza handiak gertatu dira, eta lehen ez zegoen zerbait orain dago, hau da, euskaldun ezkeriarren multzo handia.

Goian aipaturiko guztiak errealtateak dira, gure begi bistan dagoen zerbait da. Ikus ditzagun orain errealtate horien artean nola ari diren munduan zehar zabaldurik dauden hiru instituzio handi: Sozialismoa, Komunismoa eta Eliza Katolikoa.

SOZIALISMOA.—Gudu zibila aurrean, Espainiako Alderdi Sozialistak (PSOE) indar handia zuen Euskal Herrian, Prietoren gidaritzapean. Garai hartan ez zegoen ia euskaldun ezkeriarrik, eta zeudenak espainol alderdietara jo behar zuten beren ideologiari atxekitzekotan.

Behar bada Felipe González-ek irakurri du Prieto-ren garaian sozialistek Euskal Herrian zuten indarraren berri. Edo behar bada Múgica Herzog eta beste sozialista batzu ez dira konturatu hemen gertatuko aldakuntza nolako sakontasun

eta zabaltasunez egin den. Dena den, Felipe González Euskal Herrira etorri da beren lehen bidaia publikoan eta horrek adierazi nahi du nolako garrantzia ematen dion gure herriari. Baina ez du zuhur jokatu. Sozialista horik gerra aurrean bezala, portatu dira hemengo giroa zeharo aldatu dela konturatu gabe. Huts egin dute, eta politikan, hutsak barkaezinezak dira.

Aurreko urteetan, ene ustez, PSOE-koak izan dira Euskal Herrian guttien mugitu direnak, eta beharbada horregatik hemengo errealtateak at geratu dira. Zenbat PSOE-ko jende dago ikastoletan, euskal folklore taldeetan, euskal kazetaritza eta literaturan? Nik bederen ez dut batere ezagutzen. Orduan, Euskal Herri euskaldundu batetan, gidaririk gabe geratu dira, herriaren dinamikatik at. Eta errealtateak at egote honen ezaugarriak nabarmenena Lintzirin ostatuan gertaturiko anekdota da; ZERUKO ARGIAko kazetari bati, galdera euskaraz egin ziolako, "Biba Euzkadi Nazi" erantzun zion haietariko espainol sozialista batek. Irteera hori ez soilik infantilismo hutsa, baizik eta PSOE-ren kontra euskaldunok erabil dezakegun sloganik hobereña bihur daiteke, zerbait aldatuz noski: "Biba PSOE Nazi", zeren euskaldunok Euskal Herrian euskara egitea ez da nazismoa. Nazismoa litzateke gu gaztelaniaz egitera bortxatzea.

KOMUNISMOA.—Sozialistak ez bezala, PC-koek ez dira lotan egon azken urte hauetan. Fabriketan batez ere lan asko egin dute, eta euskal kulturaren arloan ere bai. Gerra aurrean ez zutena orain daukate: txistulariak, dantzariak, kantariak, bertsolariak eta euskal idazleak, eta azken hauk ez edonolakoak. Beren ideologiaren propaganda (etxera postaz bidaltzen didate) gaztelaniaz eta euskaraz egiten dute, euskara batuan, eta hau ez itxura gisan, zeren lan sakonak eta sloganak euskara hutsean ezartzen dituzte.

Baina hauek ere barkaezinezko huts bat egin dute, Gernikako manifestua dela ta. Nafarroa Euskal Herria da eta egia hau dudatan jartzea ez dugu euskaldunok inolaz ere onhartuko. Euskal Herriaren mutilazio hori ezin daiteke gaur egun planteatu ere. Nafarroa Euskal Herria da, Bizkaia den bezala. Horretan ez dago dudarik.

ELIZA KATOLIKOA.—Hemen bereiztu egin behar dugu Eliza ofiziala eta jende katolikoa. Euskaldun katolikoek euskaldun kontzientzia dute, baina ez Eliza ofizialak, azken ANAITASUNAK batetan argitaratu zèn mapa barregarri hark adierazten digun bezala (Gipuzkoa Bizkaitik bereiztearen zorakeria ez zaio ezkeriar lerdoenari ere bururatu).

Eliz hierarkiak zuhurtasunez jokatzearen fama du, baina euskal arazoan ez da horrela gertatu, eta gaur, 1976. urtean, ez dago euskal konferentzia episkopalik eta Euskal Herri osoturik Elizaren lur banaketan.

Bestetik, euskararen arloan Elizak galdu egin du orain arte zuen monopolioa, eta euskara batuaren arazoan ere oker jokatu du.

Aipaturiko huts hauek zuzentze bat eskatzen dute, luzapezik gabeko bideratze bat.

AUKERAREN GARAIA.—Ikusi ditugu hiru instituzio mundialak. Aztertu dugu, gainera bederen, euskal arazoak duten jarrera. Jakin bezate Euskal Herriko giroak ez duela kolonialismorik onhartzeko, ez mono urdinez ez sotana morez jantziriko predikatzailak ekarria izan arren.

Espainian aurrera doan irekitasunaren bidea hauteskunde libre batzutan bukatzen bada, euskaldunok aukera politikoak egiteko garaian aurki gaitzeko. Euskaldun ezkeriar batek, nori eman beharko dio botoa? Indartuko ote da gure artean euskal sozialismo bat? Gerta daiteke hau gure buruhaustean irtenbidea?

Asko itxadon gabe, denborak emango digu erantzuna.

Xabier Gereño

Herriarekin. Herriarentzat.



Caja Laboral.



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**

EKONOMIA

Eraberritze Fiskala

Arlo hau hamaika bider aipatua izan da azken urteetan, eta Haziendako ministro guztiek hasten zuten beraien agintea "benetako" Eraberritze Fiskala agintzen. Guztiak zeuden konforme eta ados beren akatsak aipatzen, baina inork ez zuen aurrerabide tikienarik lortu. Guztiak zeuden ados inflazioaren aurka joateko eta txiroari laguntzeko, baina beti ikusi ditugu txiro gizarajoak bazterturik eta prezioaren gorakada beldurgarria. Azkenengo Haziendako buruak, gehiago etorriko dira eta, guttiago ez izatearren berdin berdin agindu zuen Eraberritze Fiskal hospetsua amaituko zutela epe tiki batean, eta txantxetan ez hartzeko, zeren eta Gobernu guztiaren lehenengo asmoa zen. Batzuk sinestu zituen ministroaren asmoak, beste batzuk ez, baina guztiak itxaroten zeuden lehenengo neurriak ikusteko nondik hasiko ziren eraberritzen eta nolako berrikuntzak itxaro zitezkeen.

Otsailaren azkenengo astean hasi ziren lehenengo neurriak zabaltzen, Haziendako nagusiak guztien onerako asmatutakoak eta Gorteetara bidali bedeinkapenaren zain. Nola-koak dira inflazioari atzeman egiteko eta txiroak ondo bizi daitezen ezin hobe neurri asmatutako hauk?

Lehenengotik, 160.000 pezetatik beherako alokairuak IMPUESTO RENDIMIENTO del TRABAJO PERSONAL delatik aske zeudenak orain 170.000 pezetatik beherakoak jarri, Europako hoberena zela esanez. Europa alde batera itxita, beste arazotan legez, Espainiako alokairu tikienak, "salario mínimo" ere, ordaindu beharrean aurkituko dira. Bestaldetik honek suposatzen du 6'6 % gorakada bat baina bizitzakoa askoz haundiago izan da. Hots, ez dugu abantailarik ikusten, hitz hutsak baizik.

Bigarrena, txaletak, motorrak, jolasetako beribilek eta itsasuntziek, edari alkoholikoen eta abar, luxozko gauzak direla eta, zerga haundiago ordainduko dute hemendik aurrera. Aberatsek lehen bezala erosiko dute nahi dutena, nahiz eta pixkat gehiago ordaindu, baina bitartean txiro gizarajoa kopatxo edo luxotxo bat ezin eskuratzu aurkituko da. Artikulu guztiak garestiago izango dira, eta aberatsa ez dena txarrenak eta merkeenak bakarrik eskuratu ahal izango ditu. Gauza onak beti gelditzen dira aberatseentzat. Honela ere Haziendako kutzak abantaila edukiko du. Ikerpena zaindu eta babestua izango dela agintzen dute, inspezio fiskala gogortu eta zabaldu, inbersioa lagundu eta honelako beste borondate oneko asmoak, jendea lasaitzeko edo hitzaldia betetzeko, baina errealitatean gutti egingo dela ikusten da oraindik.

Azkenean, datorren urterako agintzen dute Eraberritze Fiskala Gorteetako lege batean irtengo dela, eta beldur gaudela ea ez den izango beste sasi-eraberritze bat, hitz hutsak bakarrik aldatu eta sustrai faltsuak kendu eta garbitu gabe.

Lehenengoz kontuan hartu behar da zergak ez direla arbolako lore bezala, urtero udaberrian pizten direnak. Haziendako eginkizuna gizarateak dituen premiak betetzea da, gizarateko gizon bakarrari laguntzeko. Horretarako gizonak bidea eduki behar dute beren premiak azaltzeko Haziendari. Honela Haziendak jakingo zuen zer premiak bete behar dira, eta zenbat diru beharko da horretarako, eta hau bai izango litzaiteke eraberritze garbi bat. Gizarateak eta berau konposatzen duten gizonen ezin dute topo egitea Hazienda itsu eta gor batekin.

Behin jakinez gero zenbat diru behar den ba dira teknika konkretu asko diru hori batzeko, eta sistemak ez dira onak ala txarrak, Gizarateak ondo ala gaizki ikusiak baizik.

Sistema bat onartua izan dadin: Gizarateko gizona:

a) Beren premiak eta interesak Haziendan ondo erreprezentatuak ikusi behar ditu.

b) Argi eta garbi jakin behar du zer gastu egin behar dira eta zertarako.

c) Nola batuko den dirua jakin behar du eta bakoitzak zenbat ordaindu behar du.

d) Eskubidea eduki behar du praktikan kontrolatzeko eta ikusten dituen akatsak azaltzeko.

Guzti hau lortzeko Gizarate aldatu behar da Gobernu eta Haziendakoek beren atea gehiago zabaldu behar dituzte. Eta hau bai zaila izango da.

G. O.

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi

ondoko txartela eta bidal helbide honetara:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º

Apart. 495 - Bilbao-5

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia Tel

anaitasuna

Bizkaia

hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

Urteko abonamendua:

Bertorako 500 pezeta
Latin Amerikarako 550 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako 700 pezeta

Ale bakoitza: 25 pezeta.

HELBIDEA:

Pelota, 4-1.º, Bilbao-5

Posta kaxa 495. tel. 4237449



ipar aldea

EUSKAL DEPARTAMENDUA?

AIRE ZAHAR BERRITUARI LOTUZ, EUSKAL HERRI GIZONAK DANTZAN

Nork usteko zukeen? Euskal departamendua uste gabetarik plazara atera zaigu berriro. Aspaldiko xede zaharra —departamendua bezain zaharra funtsean—, orok ahantzixea zutena, ipar aldeko Euskal Herri gizonen azken eztabaida-gai nagusia bilakatu da zenbait aste honetan. Ez da kasik aste bat iragaten, Urliak edo Sandiak euskal departamenduz zer dioen jakin erazi gabe: kontra; alde; edo bai eta gero eta mai-zago, kontra izan gabe ez alde ere; alderantziz ez bada. Nora haize, hara aise... Haizea norako den jakin behar, haatik.

Franco beste mundurako bideetarik abiatuz gero, denbora laburretan, euskaldun anitz sortu da hemengo bazterretan. Eta, ondorerik gabeko kausarik ez baita, lepoa egin daiteke, laster, mugaz hego aldean gauzak "ontsa" joaten badira, beste asko sortuko dela, udazkenean Uztaritzeko oihanetan ondoak bezalatsu. Fruituek orok beren sasoiak: hala egin zuen Jainkoak mundua. Beha gaude, bada, orain arte ukatzen zutenak, noiz diren oroituko beren aitamen euskalduntasunaz edo bederen, zuhurraren zuhurtziaz, noiz diren ohartuko gaurko departamenduaren desorekaz. Halatan, frogatuko da laster, fragatzeko bada, zeinen ahula den ideiaaren indarra, moltsarenaren ondoan. Gaizki ala ongi, zer munta? Moralak Historiaren errota (holako hitzez ari baitzaigu zenbait) ez du behin ere geldiri erazi.

Gisa guztiz, ez uste Euskal Herri gizonen baitan halako euskal garrik piztu denik oraindik. Zer nahi da? Delako errota hura emeki-emekiño aitzinatzen da. Burutik joan eta nahas-lari ero batzuk konfesategietarik ateraziz geroztik, "euskaldun" hitza, hitz erragarria bihurtu baita, ez da nola nahika erabili behar. Ez erabiltzea hobe. Hastapenean bederen. Horra bada zergatik baztertua den gaurko departamenduaren erdibitzearen aldekoen solasetarik. Haien Frantziaren alderako atxekimenduz inork ez dezan duda, ez dute euskal departamendurik aipatzen: departamendu "berri" baten alde dira. Nolakoa ordea? Hona, beraz, abilezia: Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa isilka, alegia deus ez, bilduko dituenak. Euskaldun klandestino moeta berria.

Ba dira arras kontra direnak ere. Tokiko bunkerra nahi bada. Oraingo kontseilari jeneralak adibidez. Denek, batek salbu, xede horren kontrako ageri bat izenpetu dute. Diotenaz, departamenduaren zatitzeko eskapena desgaraikoa eta lanjerosa da. Desgaraikoa zergatik den ez da ondo ulertzen; lanjerosa bai. Piska bat bederen. Nahiz ez den hain beldurgarria, mugaz alde batean nola bestean, giderrak norik atxekitzen dituen ikusten delarik. Gainera ba dirudi haien arteko batzuek damutzen hasiak zaizkigula jadanik. Guy Petit-ek ontsa berotu baitzitezkeen ez bide ziren ohartu zertan ari ziren. Geroztik hitz leunagoak darabiltzate: ikusi eta aztertu behar dela; arazoa politikatik at utzi behar dela; geroan behar bada gauzak aldatuko direla, eta holako ele zuri franko...

Kontseilari jeneralen ageriak ekarri eztabaida eta kalapitak jabaltzen hasi orduko, gutik usteko zuenak jo du errefera:

Frantziako Alderdi sozialistak. Duela zenbait egun, hots, na, Frantses sozialisten Departamenduko batzorde eragile ere bere agiriñoa argitara eman du. Honetan zera baitio: Euskal Herriko militanten artean egin ikertze baten arazoak euskal departamendu baten sorpena % 60k gauza beldurgarritzat daukala. Ipar aldeko frantses sozialistak ezagutzen dituenarentzat aski handia da jadanik. Alta, handiago bada: garbi gera dadin nahi dute, arazoa, oroz gaineratik, politikazkoa dela, eta ez ekonomiazkoa edo administratibiazkoa. Hots, "euskal populuaren arazoa" dela. Kasu eraberrak behar da ezen hitzek beren pisua duten: "euskal populuak diote eta ez "euskal herriko jendetza". Bi orduz mokatzen izan omen dira bata ala bestea emanen ote zuten jakintza. Erabaki historikoa.

Bistan denaz, ausartzia horrek bere muga badu. Lehen problemari % 72k ez dio lehentasuna ematen. Bigarren Frantziaren ezkerre nagusi arte, huskeriatzat daukate euskal departamendua. Orduan egiten den deserdiratzeari aipatu egiten ahalko baita zerbait serio. Erran nahi baitu, euskaldunek beren departamendua nahi badute, noren alde bota behar dute dakitela. Nonbaitetik ere...

Eta abertzaleak? Antza, ez dira horretaz biziki kezkatuta oraindik. ENBATA astekaria izan ezik, osoki "departamendu berri baten aldeko Batasunaren" alde jarri baita. E. H. A. S. ere horri buruz zer dioen jakin erazi du: euskal departamendu-Herrialde baten alde da. Besteak, baina hemenka barreiatuak diren talde txikiak isilik daude.

Irudiz, euskaldunak berak bezain isilik. Hitza aspaldiko kundu zioten hemengo euskal populari. Elea galdurik, berri hori hor dituela herri gizonak, haren ordez mintzatzen...

BENAT BIDEGORRI




BI KOMIKI BERRI EUSKARAZ

Bata, *Kaiku artzain-zakur* izenekoa, Patrice (Roulet) (alias *Bizar Beltza*) egina da. Berau 27 urtetako irudigile gisa te bat da, frantses etorkikoa izan arren, ttikitariak Beldun bizi eta bere herrizat Euskal Herria hartu duena.

Itsasoko istripu baten kausaz, esku-hankari baliabide gabe du, baina elbarriturik egon arren, bere obra ikusitako, desatxatutako biziki ongi moldatzen dela aitortu behar da. Bata, nolako lezioa erabat oso egon arren, deus egiten ez duen beste askorentzat!

Bestea, Mugaidek argitaratua, komiki frantsesa eta espainiar historiako bat da, euskaraz egiten den lehenbiziko komiki bat eta helburuz gutiatsua bada ere, ez dago, guztiz jatorri ondo biribildua. Saio interesgarria, hala ere.

X. KINTANA



KATALUNIA BERRIAREN BILA

Galderak: **Joanes GOIA**

Erantzunak: **J. Andreu**
P. Ardiaca
J. Cabré
J. Pallach
J. Pujol
R. Trias



ALDERDI ERANTZULEAK

Convergència Democràtica de Catalunya

Erdi-Ezkerreko alderdi abertzalea. Sozialki aurrerazale izango den Demokrazia nahi du eta Europan integratuz.

Esquerra Democràtica de Catalunya (EDC)

Parlamentudun demokrazia, partidu askotarikoa eta benetan errepresentatzailea, ekimenari leku emangodion ekonomia librea.

Esquerra Republicana de Catalunya (ERC)

Macià eta Companys-en alderdia da, 1931an sortua. Ezkertiar ez-marxista. Abertzalea eta programa sozial bizkorra.

Partit Carlista

Federalista, kojestionaria, europazalea, errepublika natural konfederatuen aldekoa, Erregea guztien batasun ardatz izanik.

Partit Socialista Unificat de Catalunya (PSUC)

1936an sortua, lau alderdi sozialista eta komunista elkartuta. Kataluniako alderdi komunista bezala jotzen da. Marxista-leninista. Kontseiluak alderdi autonomizat jo du.

Reagrupament Socialista i Democràtic de Cat.

Gaurregun Kataluniako alderdi sozialista nagusitatzotzen da. Psoetarrekin izan ditu gorabeherak. Sozialistademokratikoei irekia, berdin marxista, sindikalista eta kristauei ere.

GURE ERANTZULEEN BERRI LLABURRA

Convergència: Jordi Pujol Soley

Taldearen burua. Midikua, baina bere eginkizunik ezagunena banketxeetakoa izan da. Banca Catalana-ren Lehendakari-ordekoa. Gaurko katalan abertzaletasunaren gidaririk ezagunenetakoa.

EDC: Ramón Trias Fargas

Unibertsitatean irakasle. Ekonomista. Barcelona-ko "Vanguardia"n idatzi ohi du. Nazioarteko Elkarte Liberalarekin oso lotua. Alderdi burua.

ERC: Josep Andreu i Abello

Abogatua da. Tradizio haundiko alderdia du, Errepublikari garaiko politika beronek gidatu zuelako. Alderdi burua.

P. Carlista: Joan Cabré

Hugo Carlos-ekin berritu den alderdi honen buruzagietako bat Katalunian.

PSUC: Pere Ardiaca i Martí

Alderdiaren sortzailetako bat. 1939an herbestertua. 1962tik 1971ra espetxean. Gerratez gero, orainxe guti hitzegin du lehenengoz Barcelona-n. Idazlea.

Reagrupament: Josep Pallach

Barcelona-ko Unibertsitate Autonomuan irakasle da. Geroz eta oihartzun zabalagoa du Kataluniako indar aurrerazale eta demokratikoen artean.

ERANTZUN EZ DUTENAK

Kontseiluan partehartzen duten guztiei bidali dizkizugu gure galderak: hamaika alderdiei, inor baztergabe. Birritan idatzi zaie.

Ez dute denek erantzun. Arrazoina? Bat edo beste erdi izkutuan dabil, nonbait. Besteren batek, baietz bitan eman arren, kanpotik politik lanetan dabilenez, du egokierarik izan, dirudienez. Ba liteke norbaitek holako berririk guk ez izanarren, erantzun nahi ez izatea. Hona, ba, erantzunik eman ez digutenak:

Unió Democràtica (kristau demokrata)

Anton Canyellas.

Front Nacional

Joan Cornudella.

Partit Popular

Joan Colominas.

Convergencia Social

Joan Raventós.

Partit d'Alliberament Nacional

Joan Josep Armet.

Euskal Herria bere erakunde politikoen bila dabilen honetan, Penintsulako beste minoria nazional bateko erakundeengana jo dugu, zenbait galdera zuzenduz. Kataluniak ba du, abenduaz geroztik, bere alderdi politikoen *Kontseilu* bat, alderdiena. Bestalde, eten politikoa alde ekiteko ba da han ere *Assemblea* bat, partidu politiko eta bestelako gizarte-indarrekina osatua.

Consell de Forces Polítiques de Catalunya-ri itaun batzu egin nahi izan dizkiogu. Kontseilu honetan elkartzten dira Katalunian oposizio demokratikoa daramaten alderdiak. Hamaika dira barnean daudenak. Aurreko batean eman genuen hemen bertan guztion zerrenda. Galderak guztiei egin zaizkie; erantzun, ez dute denek erantzun.

Seiren ihardesprenak ditugu hemen, hain zuzen, gaizki ez bagaude, une honetan bizkorren dabilzan alderdienak. Eta eskuinetik ezkereraino doaz taldeok, gainera: hau da, alderdi karlistatik partidu komunistaganaino, nahiz eta bakoitza non koka jakitea batere erraza ez izan.

Bost galdera zuzendu dizkiogu bakoitzari, denei berdinak. Bi Kataluniari buruzkoak dira, bi Euskal Herrira begira eginak eta beste bat Katalunia eta Espainiaren arteko alderdi-harremanei dagokiena. Sei erantzuleetatik bik, eskainitako luze-zabala hautsi egin dute; baina batek, behintzat, espreski esan digu laburpena geuk egiteko. Erantzun denak idatziz eman dizkigute, eta ia beti datozen bezalaxe itzultzen ditugu.

Euskal irakurle arruntari ezezik, gure partidu politikoei ere eskaini nahi dizkiegu galde-erantzun hauk. Agian, ez dio inori kalte haundirik egingen. Eta, nork daki, beharbada zerbait ikasi ere egingo dugu.



KATALUNIAZ ZER?

Zeintzu izan dira, zure ustez, gaurregun Katalunian ikusten ditugun alderdien politik elkargoak sortarazi dituzteñ arrazoinak? Zein da partiduen elkargo horien gaurkoa eta etorkizuna Katalunian?

Joan Cabré (Kataluniako Partidu Karlista)

Kataluniako alderdiek ikusi dute, bakarka ez dutela inongo egia osorik, talde-elkartean egin behar dutela lan. Komentzi-mendu honek eta denon indarraren premiak eraman gaitu batasun hauetara. Elkartasun izpiritu hau finkatuz doa alderdi haundi eta txikien artean. Ez da egokieraren arrazoina bakarrik, partidu klasikoek ukan ohi duten egozentrismoa hautsi nahia era ba da. Ez dugu nahi neohitlerismorik, ez neostalinismorik.

Ramón Trías Fargas (Esquerra Democràtica de Catalunya)

EDC Kontseiluan sartu denean zeragatik izan da: Kataluniarekiko iritzi bateratu eta zabal bat indarberritzeko, egiazko demokrazia baterako behar-beharrezko erreforma politikoak egin ditzagun. Bistan dagoenez, demokrazia hori lor dadinean, hauteskundeetarako elkartasunak beste esannahi bat ukanen dute gure artean.

Jordi Pujol Soley (Convergència Democràtica de Catalunya)

Gure naziotasunaren benetazkoa eta berau aitorrerazi beharra izan da gure arrazoina. Horretarako katalan menpekotasuna duten partidu politikoekin batasun batera iristea premiazkoa ikusi dugu, bide honetatik, Estatu espainolaren barneko beste erakunde politikoekin hitzarmen batetara hel gaitezen.

Nolakoa nahi zenuke eta nola ikusten duzu, berehalako urte hauetan, Kataluniaren nazio-etorkizun politikoa? Zer esango zenuke zure politik programa horretatik begiratuta?

Joan Cabré (Partidu Karlista)

Errepublikan natural konfederatuen gure programaren barnean ikusten dut; autojestioaren eta kojestioaren sozialismo batean lotuko diren anaiarteko errepublikaren artean ikusten dut. Borbón-Parma familiarekiko paktua, arkuaren giltzarritzat hartzen dugu. Erantzukizun osoko errege bezala, katalan komunitatearen kojestio oso bat posible eginaz eta koordinatuz, guztien libertatea eta nortasuna gordez. Katalan Nazioaren etorkizuna osorik nahi dugu, gainerako espainiar Nazioen onginahia ere lagungarri duela, horrela, Espainiaren betetasun batera denok batean hel gaitezen.

Josep Pallach (Reagrupament Socialista i Democràtic de Catalunya)

Espainiako indar politikoekin egin ditzakegun edozein hitzarmenatarako fronte batu bat presentatu ahal izateko sortu da Kontseilua. Defendatu nahi dituen gutieneko puntu batzu hauk dira: askatasun demokratikoak eta Generalitat de Catalunya-ren ber-jartzea. Kontseiluaren une honetako ahallegina Katalunia-ri Gobernu bat ematera zuzentzen da. Etor-kizunean, libreki erabakiko du gure herriak, zernolako Parla-mentu eta Gobernu nahi dituen. Gu libreki joango gara hau-teskunde horietara.

Josep Andreu i Abelló (Esquerra Republicana de Catalunya)

Katalunian ditugun Kontseilua eta Asanblada, eten demo-kratikoa sortzeko sortu dira. Aldaketarako bide bakarra eten horixe dela uste dute batasun-elkargo horiek. Iritzi berdinta-sun honek gutieneko puntu batzuetara eraman ditu: amnistia, askatasun demokratikoak, Autonomi Estatutoa, eten-unerako Kataluniarentzat behin-behineko Gobernu bat. Gizarte-klase askotarikoek parte hartzen dutenez, batasun-elkargo hau klaseartekoak dira, noski. Orain-oraingoz da hori horrela; errejimen demokratiko eta autonomikoa etor dadinean, oraingo elkartasunak desagertu egingo dira, gau-rreguneko guztien helburu bakarrak ere iritsiak izanen direlako, eta politik elkargo berriak sortuko dira.

Pere Ardiaca i Martí (Partit Socialista Unificat de Catalunya)

Gaurreguneko batasun-elkargoak, hau da, Kontseilua eta Asanblada Espainiari errejimen demokratiko bat eman eta bertako nazioei autodeterminazio eskubidea eskaintzeko sor-tu dira: demokrazi helburua ezezik beste batzuk era balira (amnistia, autonomi estatutoa, etab.), ez zen posible gertatu-ko holako elkartasun zabalik. "Botere publikoen aginte iturri bakarra herriaren borondatea dela" adierazten du demokra-ziak. Irizpide horren gain jaso dira bi batasun erakunde horik, eta antolamendu biok Kataluniako oposizioaren bana-tzaile ez, baizik elkar-osagarri dira. Ezker, erdi eta eskuineko indarrekin Kataluniaren hitzarmen-bloke bat (bloque pactan-te catalán) egin nahi da, eta Generalitat-aren behin-behineko Gobernu bat eratu. Espainiako Estatuari ere holako Gobernu bat eman nahi zaio. Bai Katalunian eta bai Estatu osoan, eten demokratikoa behar da, beraz.

Ramón Trías Fargas (EDC)

EDC-k Kataluniarentzat autonomia eskatzen du, Generalitat-a berreraikiaz dagokion gobernaera historiko bezala, izan ere burujabetasun hori (soberanía) bozkatua izan baitzen Gortean eta Gerrate Zibileko dekretu baten bidez bakarrik eragotzia.

Jordi Pujol Soley (Convergència)

Lehenik, argi dago, Kataluniaren instituziogintza politikoa nahi dut, dagozkion eginpide guztiekin, eta inola ere ez 1932ko Autonomi Estatutoaren eskubideen beheragotik geratuz. Helburu hau zabal eta sakonki sentitzen du Katalu-niako herriak. Helburu hori lortzeko, honegatik ere, denbora-ren joana dugu gure alde, denon batasuna, lanerako gaitasu-na eta irudimen politikoa lagun ditugula.

Josep Pallach (Reagrupament Socialista)

Gobernu eta Parlamentu katalanak nahi ditut, 1932ko Estatuak ematen zituen bezala, Espainiako Estatu federal baten barnean. Hau ezinezkoa balitz, bazterrezina da autonomia bat, 1932koa baino zabalago bat.

Josep Andreu Abelló (ERC)

Ezkerreko indar politikoen elkarbide bat eginda ikusi nahi nuke, gobernurako guztien programa batekin, zentzu sozialista izango lukeen programarekin. Ezkertiarrok bat-bildurik irauten badute, 1936an bezala, Kataluniako hauteskunderen gehiengoa, maioria, izango dira.

Pere Ardiaca i Martí (PSUC)

Kataluniaren etorkizun politiko eta nazionala nahiko berrakortu eta optimista begira liteke, izan ere sortutako politikari elkargoek alderdiak demokrazi jokua errespetatzera bultzatu dituzte baitituzte: aldizka hauteskunde libreak egitera, herriaren borondatearen arabera agintea itzulikatzea. Lehendik dugun eskarmendua gogoan dugula, nazio berrakortzeko indar gehienak, eta Estatu osokoak ere, demokraziaren alde egongo gara, eta lortuz gero, hori irmotu eta iraugarazteko izango gara.

KANPOKO ALDERDIEKIN ZER?

Kataluniako alderdi politikoek independentzia edo autonomia bat eduki behar ahal dute beren izenkide era kideko dituzten Espainiako beste partiduen aurrean? Nolakoak dira zuek dituzten lokarriak, nola elkartu beharko lukete Kataluniako eta Espainiako alderdi lagunek? Delako sukursalismoaz ari naiz.

Joan Cabré (Partidu Karlista)

Beste edozein tokitako alderdiak bezalaxe, Kataluniakoak ere erantzukizun osoarekin jokatu behar dute, Kataluniako beharrezan eraman eta posibletzeko. Penintsulako Nazio Konfederatuak bezala, partidu politikoak ere geopolitikak ezartzen dizkien kondizioen barnean lan egin behar dute. Bakoitzak bere nortasuna mamituz, kideko dituzten beste alderdiekin ere elkartu egin behar dute, talde-lan egokia bete dezaten. Hauxe da, hain zuzen, guk dugun esperientzia.

Ramón Trías Fargas (EDC)

Alderdi politiko katalanek Kataluniaren errealtatea ispi-latzen dute. Katalunian ez dago alderdi politiko espainolik, katalan partiduak baizik, Madrilen eta gainerako Espainian izenberekoekin batera. Kataluniaren errealtatea ezjakitea, porrot bat izan da horretara jo duten alderdi guztientzat.

Jordi Pujol Soley (Convergència)

Estatu espainoleko errealtatea nazioaniztuna, plurinazionala, baldin bada, partiduek errealtate horretaraxe egokitu beharra dute. Beharrezkoa da, beraz, Kataluniako alderdiak katalanek izatea. Bereztasun honek, ordea, ez du apartetasunik esan nahi. Katalantasunak horretara eramanik, Kataluniako indar guztiekin harremanetan gauden bezala, ideologi lokarriak dauzkakiegün Espainiako Erdi-Ezkerretako taldeekin ere harremanak nahi ditugu.

Josep Pallach (Reagrupament Socialista)

Katalan alderdi politikoek independentteak izan behar dute, eta halaxe komeni zaienetan hitzarmenak hartu beren izenkide dituzten penintsulako gainerakoekin. Gure eskarmenduak dioenez, gaur-gaurkoz hauxe da irtenbide bakarra. Harreman onak ditugu Galiziako gure lagunekin eta bai eta PSOE eta PSDE-rekin ere. PSOEk nolanhiko sukursalismoak bazter litzala nahi genuke, eta beronen Kataluniako Federazioa sar dadila gure Reagrupament honetan. Hain zuzen, PSOE ez da eratu Katalunian.




Josep Andreu i Abelló (ERC)

Noski baino noskiago, Kataluniako alderdi politikoek gure erantzukizun osoarekin jokatu behar dute. Katalunian, hemengo partiduek lehenengo tokiko menpekotasuna izan behar dute, hau da, beren erabakiek gailu eta zuzendaritza hemen behar dituzte eduki, gertatu aurrean gertatzen zenaren gisara: Esquerra Republicana de Catalunya, Lliga Catalana, Acció Catalana Republicana, Unió Socialista de Catalunya... Ezer guti irabaziko litzateke, Kataluniari autonomia aitortu, eta gero beren zuzendaritza Madrilen dituzten partiduek erabaki haundiak hain hurbil balituzte. Horregatik, partidu horiek alde batera utzi behar lukete hemen, Katalunian, sukursalak jartzea. Nere alderdiaren esperientzia arazo honetan argia da. Autonomi gaitasun gurea zen gehiengo politikoa Katalunian, eta gure menpekotasunak hemengoak ziren. Eta horrelaxe segiko dugu. Berrakortzeko elkarte-moduz eraman litezke Penintsulako taldeekiko harremanak.

Pere Ardiaca i Martí (PSUC)

Alderdi bakoitzak libre izan behar du Estatu osoko beste alderdiekin harremanak izateko. Beraz, Katalunian, Kataluniako herria izanen da, bozketen bidez, hain zuzen ere. Demokraziaren arabera egingo da hori ere. Bere alderdiak, PSUC partidu katalana, nazionala eta klasista da, beraz, bere ideologiaren eta helburuen arabera, harreman onak eratu behar ditu Espainiako Alderdi Komunistarekin. Hain zuzen, beraz, ze haren jarraileak bizilekuz aldatzean, Katalunian gure alderdira pasatzen dira, beste gabe. Demokraziaren aldeko sozialismoaren aldeko burruka, ene ustez, Espainiako herria guztiena da, horrelaxe joan beharko dugu denen eta denentzaren askapen soziala eta nazionala lortzera.



... ETA EUSKAL HERRIAZ ZER?

Aldaketa une honetan zer eskatuko zenieke zuk Euskal Herriko alderdi abertzaleei, eten demokratikoa datorkeenerako? Zer, batez ere arazo soziala darabiltenei?

Joan Cabré (Partidu Karlista)

Autodeterminazioari leial natzaiola, ezin dezaket Euskal Herriaz deus esan, hor bizi izan gabe. Baina muga horren barnean erantzun egingo dizut. Abertzale *bakarrik* direnei zera esango nieke: ez dezagun ahantz gure giza-zuzterra; gizarte-klasista edo legalista bat Herria bera ukatzea da. Hizkuntzaren garrantzia aitortuz ere ez dugu dena egin, bizitzako beste beharrianak (jatena, eskola, lana, etab.) asetzen ez baldin baditugu. Gaur, zorionez —eta horixe da premiazkoe-na—, aitortu dugu lanaren duintasuna, baina norberaren osotasunerako komunitatea behar dugu. Arazo soziala *bakarrik* darabiltenek gogora bezate ekonomiarekin batera izpiritutasuna ere premiazkoa duela gizonak.

Ramón Trias Fargas (EDC)

Euskal alderdiak, katalan partiduak bezalatsu daude; baina eragozpen bat gehiago izan dute, euskal errealitatea gurea baino gutiago aitortu delako eta, ofizioski, euskal alderdiak askatasun gutiago ukan dutelako. Espainia osoko alderdi lagunekin, eta nazioartean ere bai, lanegiten badute, erraztasun gehiago izango dute hazteko eta aitzinatzeko.

Jordi Pujol Soley (Convergència)

Euskadik tradizio politikoa luze eta trinkoa du, eta jeltzaleak eta jaioberriago ditugun beste zenbait talde izan litezke horren ezagugarriak. Horiek horrela, ez dut uste kanpotiko iritzien beharrik dutenik, euskal arazoak urruti batetik ikusten ditugun lagun nahiz erakundeengandiko iritzi premiarik. Hala ere, apalki itzalik haundienarekin, esango nuke zerbait, Kataluniatik esana: naziotasunari ardatza emateko instituzio propioen garrantzia; alde honetatik, Eusko Gobernuari eustean Euskadik benetan asmatu du.

Ba liteke —ez dakit— Eusko Gobernua kritikagarri izatea, beste edozein giza-egintza bezala, baina hor dago eta konkretua da, eta trukaezinezko zerbitzu bat betetzen du.

Josep Pallach (Reagrupament Socialista)

Euskal alderdi abertzaleak geroz eta gizartezaleago izan daitezela; eta sozialistak, berriz, azpimarra dezatela abertzaletasuna. Euskal herriaren nazio-eskubideen aldeko pakto nazional bat da, ene iritziz, irtendiberik onena.

Josep Andreu i Abelló (ERC)

Elkargo bateratzaile bakarrak molda ditzatela eskatuko nieke alderdi horiei, hemen Kontseilua eta Asanblada bezala. Eta beste zerbait ere bai: garaí bateko *Galeuzka* hura berbiztu dadila.

Pere Ardiaca i Martí (PSUC)

Euskaldunon zereginetan sartu gabe, eten demokratikora, zeuon oinarrien gain, planteamolde batu batzuetara hel zaitezela. Horren ondoren, zer egin beharko den hori autodeterminazio bidez erabaki beharko da Kataluniako elkargo baten iritzia hauxe da: 1932ko Estatutoaren eta Parlamentuaren berritzea, beraien bidez herriak bere autodeterminazioa egin dezan, bai bere gobernabideaz, bai eta Espainiako herriekin izan dezakeen batasun moduz. PSUC-ek hori nahi du, Estatu federatu baten baterakuntza.

Datorren hamar urteetarako zer nahi zenuke Euskal Herriarentzat? Zein instituzio eta zein politika?

Joan Cabré (Partidu Karlista)

Ez dagokit neri, hemendik, inoren herria moldatzea, baina erantzun diezazudan nolabait. Kataluniak, Aragoek, Andaluziak nahiz beste edozein lurraldek bezala, Euskal Herriak ere bila ditzala bere erroak, ezagut posibilitateak eta jatorrizko herri-balioak, eta mugak ere. Hori izanen da behetik gora, hauteskunde demokratikoen bidez, aministrazio-ordezkaritza on bat hautatzeko egokiera, herriaren ohituretatik hasirik halebategia.

Ramón Trias Fargas (EDC)

Bere errealitatea aitortzea behar du Euskal Herriak. Aitorpen horrek beste eskakizun bat du euskal alderdi abertzaleentzat: espainol guztien bizimoldea eta maila politiko, ekonomiko eta sozialak hobetzea.

Jordi Pujol Soley (Convergència)

Euskal Herriak, askatasun osoan, bere buruari eman nahi dizkion instituzioak. Estatutoak, hasera baterako, ba du baliozko bikaintasunik, nahiz eta ez izan bere hartan, beste gabe hartzeko zerbait.

Josep Pallach (Reagrupament Socialista)

Euskal politika euskaldunek erabaki behar dute. Guk —eta berriz ere gauza bera diot— Penintsulako herrien Konfederazio bat nahi dugu, denon problemak elkarrekin konpontzeko gai izan gaitezen.

Josep Andreu i Abelló (ERC)

Hauxe bakarrak nahi dut Euskadi-arentzat: bere herriaren borondatea egia bihur dadila.

Pere Ardiaca i Martí (PSUC)

Ez dagokit euskaldunen instituzio-bizitzaz iritzia ematea. Lehen esanari jarraikiz, katalana naizenez eta Kataluniaz esandakoa eta Espainiako instituzio eta bizitza politikoaz aipatua eskaintzen dut. Nere mirespenik hoberena Euskal Herriko langileriak eta herri osoak aurrera daraman demokraziaren eta burrukagatik, eta nere itxaropena: demokraziaren eta sozialismoaren bidez iritsiko ahal da bere betetasun nazional batera.



II RUSSEL HAUZITEGIAK BERE KONDNA EMAN DU

Hamabi ordutik hamabi ordura hildako bat. Milaka azken 18 hilabetetan. Taldeka fusilatutako. Lau milatik gora giltzaperratuak eta hauetatik hiru mila guttienez salakuntza garbirik gabe. Berrehundik gora desagertutako. Militarren eta Isabelita Peronen erregimenak, halako sistimak erabiliz zapalketa bel-durgarrietara irixten ari da Argentina. Erroman, joan den urtarrean II Russell Hauzitegiako epailarien aurrean, horrela adierazi dute hainbat eta hainbat lekukok. Hauen artean Ana Maria Guevara, "Ché"ren arreba, aurkitzen zen.

Hauzitegi honek Bertrand Russell filosofo eta gizazalearen izena darama. Berau izan zen Vietnamgo gudua epaitu eta kondenatzeko hauzitegi bat sortu zuena. Hau, 1967 urtearen inguruan gertatu zen eta gizon "haundi" hori hil hondoren —1970 urtean— bere izena hartuko zuen, alegia, Russell Hauzitegia.

Geroztik erakunde han zeharo indartu da eta, 1973 urtean, Hego Amerikako zapalketa epaitu asmoz, II Russell Hauzitegia sortzen da. Ordutik gaur arte Hauzitegi honek hiru epaiketa izan ditu. Lehenengoa 1974ean Erroman; bigarrena 1975an Bruselan eta hirugarrena eta azkena, lehen esan bezala, aurtengo urtarrean Erroman. Hauen argentinako, boliviako, brasilgo, txileko, guatemalako, haitiko, nikaraguako, paraguayko, Puerto Ricoko, Dominikar Errepublikako eta Uruguayko herrien egoerak aztertu dira.

Hauzitegi honek edozein hauzitegik bezala epaitzen du. Epaitu nahi den Gobernu edo Estatuaz aztertzen da eta horretarako lekuko moeta guztiek azaltzen duten informazioa onhartzeko. Berrehundik gora izan dira hiru epaiketa hauetan salatzaile eta lekuko bezala, beren dokumentazioarekin parte hartu dutenak. Dokumentazio hau ezker, Hauzitegiak, zapalketa, sindikatuen aurkako burruka, ekonomi zapalketa eta manderatze tankerak, harmadaren erantzunkizuna, kulturakiko menderaketa, Elizaren jarrera eta eskubideek jokatzeko duten papera aztertu ahal izan du.

Material guzti hau aztertzerakoan, II Russell Hauzitegiak, Estatu bakoitzaren kondizio berezietatik at, menderatze eta zapalketako sistema egoki bat zabaltzen dela Hego Ameriketaren gainean, eta sistema honen arduradun garrantzitsuena Estatu Batuetako Gobernu eta multinazional enpresak direla frogatu ahal izandu.

Hego Amerika eta "multinazionalak"

Mendebaldeko inperialismoa gogorkerirean inguruan, emeki —emeki, antolatuz joan da eta gaur egun mundu guztiko herrien amenaza bihurtu da. Estatu Batuen menperaketa, kapitalaren eta botere politikoaren helburuak batzera heldu da. Kapitalaren kontzentrazioak ikaragarriko enpresak — "multinazionalak" deituak sortu ditu, eta mundu guztira heltzen dira. Enpresa hau oinharriko materien jabe egiten dira, esku-lana prezio merkean lortzen dute eta merkaturak berriak sortzen dituzte. Beren kapitalak Hirugarren Munduko herrialdeetan zuzenki inbertituaz, menpekotasunezko egoera bat sortzearen dute herrialde horien ekonomiazko bizitzan. Baina, hau ez dago gertatzerik agintari politikoei beste interesen defentsari uko egiten badiote. Multinazional enpresetako administrazioko kontseiluetan politikako arduradunak edo militarrek egoteak botere ekonomikoaren eta politikoaren adiskidetasuna dakar. Horrela gobernu horik,

sidikatoei eragozpenak jarriz, oinharriko materiak prezio merkean multinazional enpresen eskuetan ipiniz, etab., enpresa hauei ikaragarriko irabaziak lortzerazi egiten dizkiete.

Inperialisten sistimarentzat beharrezkoa da botere ekonomikoaren eta politikoaren elkartasuna, bai herrialde menperatzaileetan eta bai menperatuetan ere. Estatu menperatzaileetan elkartasun honek erakunde demokratikoak errespetatzen litzake, beren menperakera beste bide batzutatik eremanaz, halebategia, herri-aburuaren kontrola ezarriz, alderdi politikoak ustelduz, etab. Herrialde menperatuetan, ordea, elkartasun hau indarraren bidez azaltzen da. Estatu Batuak Hego Ameriketako herrialdeen barne-arazoetan oso osorik sartzen dira: 1954ean Guatemalan, 1961ean Cuban, 1965ean Dominikar Errepublikan. Txilekoa, berriz, gaur gaurko dugu.

Hego Ameriketako armada Pentaronoaren mendean aurkitzen da eta beregandik hartzen du formazioa. Harmak ere Estatu Batuetako eta Europako enpresak bidaltzen dizkio eta hauenganako loturak gogorrago da oraindik. Harmada hauek gero eta nazional kutsu guttiago dute. Ipar Ameriketako indar harmatuaren txotxongilo besterik ez dira. Hau Hego Amerikan maiz gertatzen dena bada ere, ez da horko bakarririk; beste lurraldeetara ere zeharo zabaldu da (Vietnam, Angola, etab.) Menderatze eta desegite honek Estatu moeta berri baten sorrera posible egin du. Halebategia, "Estatu alienatua" rena. Kolonialismo moeta berri hau oinazean eta gogorkerian oinharritzen da.

Kissinger eta Estatu Batuak kondenatuak

Fenomeno hau handitzeakin batera, egiazko askatasun baten bila doazen herri zapalduen borroka ere gogortu eta indartu egin da. Munduan zehar gero eta gehiago zabalduz eta garaipena lortuz doa. Inperialismoaren menpeko herri hauk izan dira Hauzitegi honen itzala eskatzen, erakunde honen bitartez beren nortasun apurra aldarrikatu ahal zezaizten. Beraz, II Russell Hauzitegiak, Estatu Batuetako eta lehen aipaturiko Estatuaren gobernuak herri horien eskubideen izenean epaitu ditu.

Aurtengo urtarrean, II Russell Hauzitegiak, alde guztietatik heldutako kazetariaren eta jendetza multzo haundi baten aurrean, epaiketaren azken erabakia eman du: Hauzitegi honek Argentinako, Boliviako, Brasilgo, Txileko, Kolombiako, Guatemalako, Haitiko, Nikaraguako, Dominikar Errepublikako eta Uruguayko gobernuak kondenatzen ditu. Era berean, Estatu Batuetako gobernuak, eta bereziki Kissinger jauna, kondenatuak izan, dira, baita ere multinazional enpresak eta hauei jokoak egiten ari zaizkien erakunde guztiak.

Azkenez, Hauzitegiaren ekintza zabalagoa izan dadin, Herrien eskubideen eta askatasunaren aldeko Elkarte eta Fundazio bat sortu dira. Poz handiaz entzun dugu hau. Hego Amerikaren hurrengo ez dakigu zein izango den. Agian, Europa aldera itzuliko dira. Dena dela, erakunde hauen eragin-na gero eta handiagoa izango delakoan gaude.

Guretzat ez da berria begien aurrean azaltzen zaigun arazo hau. Euskal Herriak maiz sufritu izan ditu hustiraketa moeta hauk. Erakunde hauen laguntzaz ere ez dut uste beste oilar batek kantatuko duenik. Halere batean ez bada beste lagungarri izango zaigulakoan nago. Haia biz.

A. Agirreazaldegi

EUSKAL HERRIKO ELIZA ALDAKETAREN AURREAN

ANAITASUNAK Euskal Elizaren azken hamar urteak aztertuak ditu berriki (ikus 1975eko abenduaren 31eko alea). Han esanak kontutan hartuz, aurrera begiratzea dagokigu, orain, eta horrelako zerbait egin nahi genuke artikulu honetan.

Lehendabizi, gure kezkak

Geure inguruari begiratzen badiogu, ba dirudi haro berri baten aurrean gaudela. Aspaldiko partez, gure gizarte giroa zertxobait mugitzen hasia da. Berrogei urteko jelate luzea lurmentzen ari da dagoeneko. Oraingo hastapenak ez dakigu zertan mamituko diren, baina zerbait "berria" datorkigula itsuak ere igarri diezaioke.

Ba dakigu zer nolakoa izan den gure Elizaren ibilera azken urteotan. Gaingiroki eta batuz beste mintzatuz, kreatibitatea eta orijinaltasuna falta izan, zaizkio gure Elizari. Ezarritako sistemak ez dio arnasarik hartzen utzi eta bertoko indarra ere ez da aski izan bortxadura hori astintzeko. Protestak, burru-kaldiak eta istiluak maiz izan dira, baina oinharritzko, planteamenduak eta erakundeak falta ziren halako zapalketari behar bezala ihardesteko. Nolabait esateko, oihal zaharrean adabakiak ipintzen ari denaren antz gehiago izan du gure Elizak aspaldi honetan.

Gure apezpikuek ere, behar zen garaian behintzat, ez dute adorerik eta argitasunik aski izan Euskal Herriaren arazoa behar bezala planteatzeko. Ba zirudien, gure apezpikuek ez zutela zer esanik erailketa edo iskanbila gogorren bat gertatu ezean.

Haro berria Elizarentzat ere

Aldaketaren aurrean, herrigintzan dabilen jendea planteamendu berriak egiten ari da eta lehengo jarrerak birpentsatzen.

Halabeharrez, gure begiak Elizarengana doaz, Euskal Herriko Elizarengana, hain zuzen. Eta, kasu, hemen Eliza aipatzen dugunean, gizarteko erakunde bezala hartzen dugu batik bat eta erakunde hortan eskunde hortan eskubide bereziak dituztenak ditugu gehienbat gogoan.

Zertan da, beraz, Euskal Herriko Eliza? Lehenean ote dirau ala bere jokabideak berrikusten ari zaigu? Mementu honek ez ote luke deklarazio berezirik merezi Euskal Elizaren alde? Zertarako izan dira, bestela, iragan urtetako protestak eta etengabeko tirabirak?

Haro berri baten aurrean gaudela esan dugu eta gainean ditugu garai berriek Elizari ere postura berriak eskatuko dizkiote, noski.

Hona zertzelada batzu gure gizartea nondik nora dabilen sumatzeko. Euskal Herriaren deskristautzea gero eta nabarmenagoa da. Edoeta behintzat, herriaren eta Eliz erakundearen arteko loturak indargetzen ari dira. Igandetako "mezatara joateak" puntu asko galdu ditu aspaldi honetan. Gure arteko erlijiozko literaturgintza franko eskasa da, bai kopuruz eta bai kalitatez. Ezkontza zibilaren eta elizazkoaren bereizketa las-

ter etorriko da. Kaleko usuario eta ikuskizunetan libertate gehiago izanen da. Familiak seme-alabetan duen eragipena urritu egingen da. Orobat, ikastetxe konfesionalen eskua ez da hain luze-zabala izango.

Labur esateko eta ondorio bidez, Elizak ez du oraindaino-koan izan duen eragipenik izango Euskal Herrian. Herria eta herrigintza ere ez da Elizarekin hain lotua egonen. Kristiandate haroari behingoz adio egin beharrean gertatuko da gure Eliza eta misiogintzan hasi beharrean. Nolanahi ere, ez da erraza izanen bide berri horik bilatzea eta ebakitzea.

Gure proposamenduak, azkenik

Abiatzeko, hautapen serio batzu egin beharrean dago gure Eliza. Eta batik bat, Ebangelioaren lekuko izan nahi duen Eliza, gure Herriaren arazoa haintzakotzat hartu beharren dago. Bada tenorea betiko eskema errazak alde batera utzi eta taiuzko planteamenduak egiten ausartzeko. Nik hemen zenbait proposamendu aurreratuko nituzke.

Bat. Bizi dugun egoeraren aurrean, postura bat hartu beharko luke Euskal Elizak, apezpikuen bidez bereziki. Oinharritzko planteamendu batzu egiteko aukera ederra de gaurkoa. Agerpen moduko bat ere puntuan legoke une honetan. Agerpen horrek iraganari eta etorkizunari begiratu beharko lieke, noski. Elizak egia zor dio gure Herriari, bai azken urteotako historiari buruz bai etorkizunari buruz.

Bi. Gaurgero, Euskal Herriko Elizak herrigintza soilari (Herriari) askoz garrantzi gehiago eman beharko dio. Herria egiten saiatzeke, ez dago benetako Elizarik egiterik. Hortaz, Herriko mugimenduak eta herrigintzan dabilen oro haintzakotzat hartu beharra dago. Bestela, Eliza hori ez litzateke mundu honetakoa.

Hiru. Euskarazko pastoralgintzari indar eta kalitate gehiago eman behar dio gure Elizak. Ez dago orain arte bezala irauterik. Honetan ere hautapen batzu egin beharra dago, gure Herriari erantzun serioerik eman nahi baldin bazaio. Euskal Herrian dauden bi herrietatik bat egiten saiatu behar dugu denok. Hauxe da, hain zuzen, gure problemarik handienetakoa. Elizak ere eginkizun hau oso berea bezala hartu behar luke. Horretarako, ordea, kriterio batzu behar dira. Kriterio horietarik bat Euskal Herria euskalduntzea izanen da, noski. Izan ere, hau onartzen ez duen Elizak nondik hasi behar du hemen lanean?


Kriterio honen arauera, gauza asko berrikusi beharko litzateke pastoralgintzan: mezak emateko modua (hizkuntzari gagozkolarik), euskaldun jendeari ematen zaizkion erraztasun eta aukerak, etab. Euskal Eliza hautapen serio bat egin beharrean dago euskararen alde.

Guk ezin dezakegu ameti Herria eta Herriaren balioak haintzat hartzen ez dituen Elizarik. (Eta hori teoriarik eta praktikan, bietan erakutsi behar da). Ezin dugu ere ametituen oinharritzko problemak ezertarako ukitzen ez dituen pastoralgintza kolonizatzaile eta zapaltzailerik.

Lau. Euskal Herriko Elizak bere erakunde eta antolamendu bereziak egitera jo behar du. Honetan ere bere kreatibitatea erakutsi beharrean dago. Bestela, erren ibiliko gara beti geure Herriari behar bezala erantzuteko. Erakundeei garrantzi handia ematen diegu geure kasuan. Axalezko pertsonalismo baten izenean, ez gaitetzen burugabeki edozein erakunderen aurka ibil. Bertoko erakundeak behar ditugu Euskal Herrian eta Eliz mailan ere horixe bera nahi dugu.

Bukatzeko. Eliza librea nahi genuke, baina Herriari lotua.

Jose Altuna



Jaio aurretik Avuik lortu dituen laguntzaile eta harpidedun guztiek garantizatzen dute bere bizitza. Herriaren laguntza honen parte interesgarri bat artista katalanek eskaini dituzten lan guztiak dira, Avuiren "fons d'art" deritzona osatuaz, patrimoniren garanti bezala. Argazkian, egunkariaren promotoreekin Joan Miró, katalan egunkari zaharren erakusketa ireki zenean.



Avuirentzat Mirok egindako kartela.



AVUI GAUR

"Avui", katalanen "normalitatera" iristeko lehen pausua

Normalitate horren maila bat, bere komunikabideak lortzea dela esaten digu Josep Maria Cadenak, *Avui* egunkariaren zuzendari ordezkaria izango denak.

Donostian eduki genuen elkarrizketa luze bat berarekin egunkari honen problematikari buruz. Ez beraien eskemak Euskal Herrian aplikatzeko, kasu zeharo desberdinetan aurkitzen garela uste baitu, ezagutzeko baizik. Gure herrian *Avui*k nahiko interes sortu du, baita imitatzailerak ere. Nire eritziz, Katalunian katalanez egunkari bat egitea posible eta zuzena iruditzen zait bere historia eta gaurko kultur egoera kontuan hartzen baditugu: 9 milioi bizilagun dituzte, seik bere hizkuntza ezagutzen dute eta bostek irakur dezakete. Beren hizkuntz batasuna 1912ean lortu zuten, Pompeu Fabra eta Prat de la Riba-ren bitartez, Bartzelonako dialektuari, ezagunena zelako, gehien bat lotuaz. Gaurko egunean, jendeak gutti idazten badu, ortografia menperatzen ez dutelako besterik ez da. Joskerakin ez dute problemarik zeren gaztelaniarena bezalakoa baita. Katalanak ere beste hizkuntzan, ez berean, alfabetatuak izan dira baina, eta hemen gurekin desberdintasun handiena, alfabetatzen horrek katalanarako ere balio du.

Euskal Herrian, hizkuntz aldetik egoera erabat desberdina izanik, kazetagaritzaren ere ez gara berdinak. Nahiz kazetaritzaren urtea, itxura aldatetaren urtea, eta beste zenbait inbentio izan, jaio berriak gara arlo honetan. Kontuan har dezagun euskal kazetaritzaren lehen pausua, —Donostian Manterolak ateratzen zuen "Euskalerrria"—, 1880.ean eman zirela eta ordurako katalanek egunkari bat ba zutela: 1879an Valentí Almirall-ek sortutako "Diari Catalá". Ordutik 1939.rartean beti izan dituzte bat, bi edo hiru egunkari katalanez idatziak. Ba dakigu Euskal Herrian maila honetara 1937.eko lehengo sei hilabetetan, bakarrik iritsi ginelako. "*Eguna*"ren bitartez. Gerra, edo gudu, ondoren, Euskal Herrian bertako, eta bere aldeko, talde politiko, kultural eta ekonomikoek duela hilabete guttirarte ez dute kontuan hartu gizartearen laugarren botere esaten zaion indar hau. Orain bai; orain guztiak dabil-tza aldizkari, irrati eta, baita ere; kazetari guztien atzetik. Zer dela eta? Alde batetik, zerbait egiteko eta esateko posibilitateak ikusten, edo susmatzen, direlako eta bestetik. lehen baino behar handiagoa dugulako. Ez dezagun ahantz Madrileko bost atekari "politikoan" artean 150.000 ale baino gehiago saltzen dituztela astero gure herrian.

Katalunian, aspalditik ari dira *Presencia*, *Canigó*, (astekariak) *Oriflama* (hamabostekari) eta *Serra d'or* (hilabetekari) kaleratzen bakoitzak bere funtzioa beteaz. Aldizkari edo etrebista maila osatua dute naiz eta zabalkunde handia (gehienak *Serra d'orek* 18.000 alekin) ez izan. Bestalde, nork esan *Destino* katalana ez dela nahiz eta erdaraz idatzia izan? Josep Maria Cadenak esaten digunez beren "normalitat" hori egunkariarekin lortuko dute eta bat baino gehiagorekin gerra aurretik zituzten bezala.

Avuien sorrera

Katalunia osoan dagoen "normalitat" nahiak, egunkari nahiak mass-mediaren arloan, hamar lagun elkartzan ditu "Prensa Catalana, S. A." entresan. Hamar lagun kultur munduan ezagunak, burjesia ttiki eta erdikoak, elkartzan dira nahi jeneral hau aurrera eramateko. 1974.eko urtarrila zen. Oinharritzat jartzen dute herriaren partizipazioa: denak errepresentatuta sentitu beharko dira eta denek parte hartu beharko dute bere ekintzetan.

Sozietate hau, milioi bat pezetarekin sortzen da. Ondoren partizipazioko kontuak zabaltzen dituzte, bonoen erara, jendea joan dadin bere interes hori laguntza konkretu batera bihurtzen. Partizipazioa hau mila pezetatik ehun milara doaz eta inork ez du kantitate hau gairiditazkerik "interes pribatuek ez dezaten kondizionatu egunkariaren esannahia". "Asko dira 100.000 peseta hartu dituztenak beren lagun eta etxekoan artean partitzeko. Baita ere hogeit eta berrogei mila pezeta hartu dituzten familia umil edo apalak ere".

Kontu hauetako bat hartzeak urtebeteko harpideduntzea ekartzen du berarekin.

"Jende klase guztietakoa dugu. Zer esanik ez politikoak, baina *Avui* ez da izango alderdiko periodikoa herri osoarena baizik".

Avui gaur

"1975.eko ekainean iritsi ginen 40 milioiko kapitalera eta orduan, pentsatuta genuen bezala, presentatu genuen dokumentazio guztia, eta eskaera, Madrilen. Ez genuen ezer espezialik egin, legearen aginduak bete baizik. Ba dakigu lehengo gobernuak begi onekin ikusi zuela gure projektua baina ezer egin baino lehen gertatu behar zuena gertatu behar zuen *Avui* eta horrela izan zen. Urtarrilaren 23an esan ziguten ofizialki *Avui*k, gai guztiek egunero tratatzeko eskubidearekin, kalera irten zitekeela".

"Apirilaren 23an, Kataluniako patroia den Sant Jordi egunean, nahi dugu kaleratzea. Egun hau kultur eta herri giro batean gure herri osoan ospatzen da, *Avui*entzat nahi dugun giro eta mundu berdinean halebategia. Eta ordutik aurrera, 32 horri, tabloide deritzan formatuan (hemengo *Correo Español*-en berdina), egunero kaleratuko gara".

Gure aldizkariaren egoera eta problematikatik begiratua, Katalunia beste geratzen da herriaren barneko egoeraren ispilu direla "mass-media" guztiak.

Diru kontuak


"Gaur 64 milioi pezeta ditugu eta 33.000 harpidedun. Gure asmoak, 60 eta 30.000, gairidituak izan dira".

"60.000 ale izanen ditu aurrengo *Avui*k eta 100.000ra iritsi gaitzake informazio zuzen, oso eta ona ematen badugu".

Kataluniako beste egunkariak tirada hau dituzte: *La Vanguardia* 250.000, *Noticierok* 100.000 eta *Tele Expres* eta *Correo Catalanek* 50.000 ale bakoitzak.

"Publizitate nahikoa izango dugu. Entresanak eta markak behartuta ikusiko dira *Avui* en anuntziatzen, Kataluniaren alde daudela horrekin adieraziko dutelako". "Bide hau normalitatera iristeko bide bat besterik ez da. Jendeak ahalegin bat egin beharko du eta publizitateko agentziak ere bai. Ez badituzte kreatibo, edo sortzaile katalanik, lortzera behartuko dira. Ez dezatela pentsa guk itzulketarik egingo diegunik".

Hortxe datza errealitate eta amets tarteko desberdintasuna. Benetakoa izan edo faltsua izan. Egunkari batek, beste mass mediak bezala, egoera soziologikoari erantzuten dio. Bere adierazpena da eta zenbat eta zuzenagoa izan, orduan eta hobeto beteko du bere funtzioa: gizartearen desberdintza, halebategia. Katalunian, *Avui* egiteko ez dute beste munduko



KIROLDEGIETARAKO OHARRAK

Duela zenbait aste, Barcelonako estadiotan jokatzen zèn futbol partidu bat telebistaz ikusteko abagadunea ukan genuen. Momentu batez harriturik geratu ginen, estadiorako ematen ari zèn ohar bat entzutean. Eta harriturik diot, gure lurralde honetan —zoritxarrez— horrela ohiturik ez gaudelako. Estadioko bozgorailuez katalanez eman zuten jokalaria-aldaketa baten berri. Guk, ordea, geure pilotaleku, futbol zelai eta antzekoetan, ez dugu horrelakorik entzuteko zorionik. Baina, ez ote dugu horretarako eskubiderik?

Argi denez, kasu honetan katalanen esenpluari jarraiki behar geniokeela uste dut. Eta, kritika hau ustela gerta ez dadin, adibide batzu jarriko ditut, hori nola egin daitekeen adierazteko.

Futbol partiduan

“Arretaz entzun! Goikoetxea irten da zelaitik. Haren ordez, Madariaga sartu da, bizkarrean hamalaua daramala.”

Honelakoak edo antzerakoak izan daitezke oharrak. Oso egintza interesgarria izan daitekeela uste dut. Horregatik, lerro hauen bitartez dei egiten diet Euskal Herriko kirol erakunde guztiei, beren estadio eta polykiroldegietan euskarari leku egin diezaioten.

J. R. Etxebarria

Pilota partiduan

“Arretaz entzun, mesedez! Arretaz entzun! Elurraren kausaz (edo eta gaitoxotasunaren kausaz, edo eta bestela) Orea hirugarrena ezin etor daiteke partidu ordurako. Beraz, programaturik zegoén partidua aldatu beharrean aurkitzen gara. Honela, bada, bigarren partidua hauxe izanen da: Erretegi lehena eta Nalda bigarrena, Berasaluze laugarrena eta Aldazabal lehenaren aurka”

ABERRI: patria, patrie.
 ABERTZALE: patriota, patriote.
 ABERTZALETASUN: patriotismo, patriotisme.
 ADOS: **batera, konforme.**
 ANAIKOR: fraternal, fraterno.
 APEZPIKU: obispo.
 ARMADA: ejército.
 ARRETAZ: **kontuz, arduraz.**
 AUTOESTRATA: autopista.
 AVUI: “**gaur, egun**” katalanez.

BATZORDE: comisión.
 BEHIN BEHINEKO: provisional.
 BERRERAIKI: reconstruir, -ido.
 BORTXADURA: presión, opresión.
 BOTERE: poder.

DAMAIGU: ematen digu.
 DEITURA: apellido.
 DUINTASUN: dignidad.

ENTREPRESA: empresa.
 ERANSKAILU: pegatina.
 ERAGIPEN: **eragin**, influencia.
 ESKABIDE: petición, reivindicación.
 ESTATU: estado.

FROGA(TU): probar, demostrar, -ado.

GARAMATZALA: garoazela, garamazkiela.
 GAZTELANIA: castellano (idioma).
 GUPIDAGABEKI: **urrikigabeki, bihotz gabeki.**
 GUTIETS(I): **mespreza (tu), txartzat har(tu).**

HAZKUNTZA: crecimiento.
 HELBIDE: dirección, domicilio.
 HITZARMEN: pacto, acuerdo.
 HUSTIRATZE: **hurrupaketa, zurrupaketa.**

IGARO: **pasa(tu), iragan.**
 IJITO: **buhame**, gitano.

ANAITASUNA, 76 - 4 - 1

IKUSKIZUN: espectáculo.
 IRITS(I): lor(tu), erdiets(i), del(du).
 ISKANBILA: **nahaste, istilu, kalapita.**
 ISPILA(TU): reflejarse, -ado.
 IRAGAN: **pasa(tu), igaro.**
 ITAUN: **galdera.**
 IZENKIDE: homónimo, tocayo.

JASAN: **paira(tu), sufri(tu).**

KATALANTASUN: catalanismo.

MENPEKOTASUN: subordinación.
 MILIOI: millón.
 MOETA: mota, klase; hitz hau latinezko **moretatik** omen dator.

NAZIO: **sorterri**, nación.
 NAZIONALITATE: nacionalidad, **komunitatea.**
 NAZIOTASUN: nacionalidad, **nazio izate.**

OINAZE: **min, pena, sufrikario.**

POLITIK—: politikazko, politikari dagokion; politik arloa:
campo político.
 POLYKIROLDEGI: polideportivo.
 PROPOSA(TU): prononer, -uesto.
 PROPOSAMENDU: propuesta, proposición.
 PROZEDURA: procedimiento.


SINESGARRI: creíble.
 SOBIETAR BATASUNA: la Unión Soviética.
 SORBALDA: **bizkarra, lepoa.**

—TIK AT: —**tik kanpoan, —az landa.**
 TXARTEL: boleto, billete.

YAYO: trebe, azkar; gaztelaniazko **dado**-tik omen dator.

ZERRENDA: lista.

Xabier KINTANA




Eranskailuek, antza denez, ijitoaren madarikazioa edo daukate: ez dago ia bat ere euskaraz ongi idatzita dagoenik. Eta bizpahirur lerrotan oker bat edo bi ezartzea, ez da, guk uste, hain barkagarri.

Oraingo honetan amnistia eskatzen duen bat dakargu, urrezko astabelarrietarako aski meritu duelakoan. Amnistia eskatzeari guztiz txalogarri deritzogu, eta gu ere horren alde gaude erabat. Baina **danontzat** edo eta **danentzat** (GUZTIENTZAT edo **DENONTZAT** hobe) jarri beharko lukeen tokian **danoentzat** moduko gauza ezentzun eta ezirakurria azaltzen da. Nortzu ote dira **danoak**; ala **nanoak** ote dira?

Tira ba! Atera dutenei puntutxo hori argitzeko erre-gutuko genieke. Eta bitartean, eta daukaten borondate ona kontutan harturik, eranskailu horren egile danaeiuntzat, aste honetako **asta**— ez baina urrezko **kata-belarriak** proposatzen ditugu. Ez dago zergatik.

Luzetara. 1: E.—2: Haran.—3: O. Sir. B.—4: Lokarri.—5: odra. auzl.—6: aetak/A.—7: R. Uda. R.—8: Hauzi.—9: R.—10: E.—11: Esnea.
Goitik behera. 1: O.—2: Oidar.—3: H. ore. H. E.—4: Askatua. S.—5: Era. aduren.—6: arrakaz. E.—7: N. rül. I. A.—8: Bizar.—9: I.



GURUTZEGRAMA

Luzetara. 1: Bokala.—2: Mendi arteko zabal handia.—3: Bokala. Ingalaterran, jaun adierazteko hitza. Kontsonantea.—4: Lotura.—5: Mahatsaren ura (alderantziz). Beldur (alderantziz eta artikularekin).—6: Herriko agintaria (alderantziz eta artikularekin).—7: Kontsonantea. Urteko saso bat. Kontsonantea.—8: Burruka, epaia.—9: Kontsonantea.—10: Bokala.—11: Emeei bularretik dariena (artikularekin).

Goitik behera. 1: Bokala.—2: Indar kolpea.—3: Kontsonantea. Zoro (alderantziz). Kontsonantea. Bokala.—4: Libratua (artikularekin). Kontsonantea.—5: Behatza (artikularekin). Hego Amerikako poeta ospetsua (alderantziz eta artikularekin). Bokala.—6: Kontsonantea. Gure planeta.—7: Bokala. Bokala.—8: Aurpegiko ilea.—9: Bokala.

AZALPENA

TXOKO EDER

Jatetxea

Menestra izugarriak,
legatz solomo eta
biper bete itzelak!!!

Barrenkale Barrena, 6
Bilbo Zaharra



MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas
tresnak, Igeritekoak, Uretako Jan-
tziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 24574-Telegrafoa, MENURI
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO-9

ALFABETA- TZEN



Kaixo, ikaskide!

Hemen duzu ALFABETATZEN lehen liburua. Lehen maila hontan, eguneroko gai arruntak erabiliz, euskaraz irakurtzen eta idazten irakatsi nahi dugu.

Berton aurki ditzakezu: euskalkien arazoa, euskaraz teknikoaren erabilketa, eguneroko gorabeheren euskaldunketa, eta abar.

Arrasateko Teknik Ikastegiari esker egindako liburua hau euskuratu nahi baduzu, eska ezazu helbide hontara:

Editorial Cinsa — «Alfabetatzen» — Pelota, 4-1. — Bilbao-5.


LARRESORO

EUSKARA BATUA

ZERTAN DEN

JAKIN

BIGARREN EDIZIOA



Zertarako da liburu hau?

- Euskararen batasuna egiteko: horrexetarako da **gaurko** liburu berri hau. Izan ere, berton jasotzen dira hizkuntzaren batasunerako orain arte Euskaltzaindiak emandako arau eta erregelak.
- Euskaltzaindiaren gidaritzapean bakarrik egin ahal izango da batasun hori: Elkargo horren lana jasotzen da liburu honetan.
- 1968.ean hasirik, bide luzea egin du batasunak; baina lanak sakabanaturik zeuden, eta liburu honetan guztiok batera ematen dira.

Zer ematen du liburuak?

- Lehenik, batasunaren historia labur bat dator, eta ondoren Mitxelenak Arantzazuko Bilerari aurkeztatu zion txostena.
- Baina txosten horretako puntuak buruz erabaki asko hartu ditu Euskaltzaindiak, eta hark ere jasotzen dira puntuak puntu ordenatuta: ezkerreko horrialdeetan Mitxelenarena, eta eskuinekoan —parez pare eta puntuak puntu— geroztik hartutako erabakiak.
- Deklinabide batua dator, laburki, kolore guztietan emana.
- Liburuaren berritasunik jakingarriena aditz batua da, edizio ofizialaren ondoren, hemen agertzen baita lehenbadizikoz, gramatika erara emanik.
- Aditz batuaren ikaslana erraztu nahirik, lau koloretan eman da.
- Eranskin bezala datoz, askotan beharko ditugun pertsona izenak eta herri izenak (azken zerrenda hau oraindik ofizialki onhartu gabea), eta batasunaren hiztegia.

Salneurria

300 pezeta liburudendetan.

% 10 pezeta merkeago ANAITASUNAREN abonatuentzat.

Eskabideak


JAKIN, Aranzazu, Oñate, Guip. Tel. 781172.

JAKIN, Cuartel, 2. Tolosa, Guip. Tel. 651106.

Izena

Kalea Tel.

Herria Probintzia



**...BEROZTATZERAKO
PRODUKTU
SAIL OSOAZ
HORNITZEN ZAITU**

- Beroztatzerako arasa irradiagarriak.
- Burdina urtzeko irradiagailuak.
- Irradiagailuentzako balbula eta osagaiak.
- Beroztatzeko erregulapen elektronikoak.
- Presio taldeak.
- Espantsio ontziak, presionagailuz eta presionagailu gabe.
- Azelerapen uragak.
- Kalori kontagailuak.
- Kontrolerako koadro elektrikoak.
- Mineral-ilezko isolamenduak.
- Beroztatzerako bestelako osagaiak.
- Gasolio eta fueloliorako erregailu automatikoak.
- Era guztitako gasetarako erregailu automatikoak.
- Ur beroaren bidezko beroztatzerako galdarak.
- Altzairu oxidagaitzeko orma-galdarak.
- Gasen bidezko orma-galdarak.
- Altzairu oxidagaitzeko galdarak, gasen bidez eta erregailu atmosferikoz.
- Oin-galdarak erregailu atmosferikoz.
- Bero interraldagailuak.
- Ur beroko biltegi metatzaileak.



Villarrías, 10 (Edificio Capitol) - Tels. 24 10 70 y 24 10 62 - Telex 33791 Condi-E - BILBO-1

SUKURSALAK

BARCELONA-16	Siglo XX, 91 bajo	2567305
BILBO-1	Ibáñez de Bilbao, 4	4233631-4233582
BURGOS	Vitoria, 17 (Edificio EDINCO, D.º 709)	204947
ODNOSTIA	Plaza Buen Pastor, 4	412802
GASTEIZ	Beato Tomás Zumárraga, 64-4.º-B	222611
GIJÓN	Fernández Ladreda, 25	352927
IRUINEA	Monasterio de la Oliva, 31	260150

MADRID-9	Hermosilla, 114	4012848
MALAGA	Duque Rivas, 33	257287
SEVILLA-11	Fernando IV, 14, A	271718
VALENCIA-8	Literato Gabriel Miró, 10 bajo dcha. (Edificio Kyoto)	3261603
VALLADOLID	Paseo de Zorrilla, 22	231605
VIGO	M.º Berdiales, 24 - Oficina 3	217742
ZARAGOZA	Peromarta, 1	235246

LAGUNTZA ETA BANAKETA ZERBITZUAK

ALICANTE	INSTALACIONES TERMICAS ALICANTINAS
ALMENDRALEJO (BADAJOZ)	ELECTRIFICACIONES PARRA
EL FERROL (LA CORUÑA)	O. JOSE ANTONIO BUYO BLANCO
JEREZ DE LA FRONTERA (CADIZ)	ELECTRIFICACIONES ANRUAL
LEON	MAISA
LOGROÑO	D. GREGORIO BENI FERNANDEZ
LUGO	D. JOSE MANUEL LOPEZ NOGUEROL
MURCIA	PROINDECSA
ORENSE	O. JOSE MANUEL LOPEZ NOGUEROL
PALMA DE MALLORCA	D. OCTAVIO M. GARCIA LLORET (Distribución)
PALMA DE MALLORCA	TALLERES CARDELL
SANTANDER	D. ANGEL CONOE PIDAL
SANTA CRUZ DE TENERIFE	O. VICTOR BONALES GUTIERREZ

Capitán Hernández Mirá, 14 dcha.	240416
Francisco Pizarro, 44	661936
Lugo, 52-3.º centro izq.	356048
Sta. Rosa de Lima, 7 - Higuera de las Coles	337170
Magnus Blikstad, 61 (Gijón)	354138
Jorge Vigón, 38	234271
Rio Limia, 1-B (Orense)	217296
Santiago y Zeraiche, 12	245353
Rio Limia, 1-B	217296
Taniente Mulet, 59	231753
Francisco Martí Mora, 35-A	237889-292945
General Dávila, 62	277146
Avda. General Mola, 102	223406